

ELAKARRIZKETA: MARGA IÑIGUEZ • EKARPENA: WEBQUEST
• ESPERIENTZIA: JOLAS KOOPERATIBOEN ETXEA •
GALDEIDAZUE: LOLO RICO • ESTITXU AROZENA

hh
hik hasi

104

5 EURO • 2006KO URTARRILA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



GAIA

Nekazaritza eskolak

Biharko lehen sektorea prestatzen

aurkibidea



8
gaia

NEKAZARITZA ESKOLAK

Euskal Herriko nekazaritza eskoletara egin dugu bisita. Lehen sektorearen etorkizunaz hitz egiteko egokiak dira han dabiltzanak, egungo egoera, datozen joerak eta gazteak ezagutzen dituztelako.



16
elkarrizketa

MARGA IÑIGUEZ

Sormenari ikaragarriko garrantzia ematen dion filosofoa eta pedagogo da. Hitz jario atseginean ematen ditu ideia horren aldeko argudioak, eta arazo askoren soluziorako giltzarria dela garbi dauka.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

NEKAZARITZA ESKOLAK

16 elkarrizketa

MARGA IÑIGUEZ

24 ekarpena

Igo zaitetz WebQuest-aren trenera!

Tolosako

28 esperientzia

Denok kooperatiboak izaten ikas dezagun

Jolas Kooperatiboen Etxea

30 ekarpena

Ikasmahai digitala Barakaldoko ikasleek

32 galdeidazue

Lolo RICO

35 berriak

41 ...goza nazazu gehiago!

Jaime Altuna

42 Atzeko atetik


Estitxu Arozena

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 . Fax: 943/ 372 154; www.hikhasi.com;

Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Ainhoa Azpiroz Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ixiar Eizagirre Erredakzio batzordea: Mikel Estonba, Mari Karmen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Jaione Apalategi, Abel Ariznabarreta, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Felix Basurko, Aines Dufau, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urraza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Otaño eta Pruden Sodupe. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: TRAM•Grafik Maketazio, aurreinpresioa: Xangorin. Inprimategia: ANIZA S.A.L. Azaleko irudia: Zizurkilgo Fraisoro Nekazaritza Eskola (Argazki Press). Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2005-XII-16). Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitetzke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

editoriala urtarrila

Ikuspegi pedagogikotik bidegabekeria bat da



Estatuek ikastetxe bakoitzaren pedagogia metodoa ere erabakitzea gehiegikeria da. Eskolan muturra gehiegi sartzeak ez dio mesederik egiten hezkuntza sistemari.

Albistea irriaren bidez entzuteko aukera izan genuen. Frantziako estatuan irakurketa prozesua metodo globalaren bidez irakasten bazen orain arte, metodo horrek sortzen dituen dislexiko kopuru handia dela eta, hemendik aurrera metodo silabikoa erabiliko da. Erabakia Hezkuntza Nazionalak hartu du. Hau da, Frantziako gobernuak.

Ikuspegi pedagogikotik horrek zer dakar? Metodo globala ikuspegi konstruktibistan oinarritzen da. Esaldi esanguratsuetatik abiatu eta horren barruan dagoena analizatzen joaten da, hitzak eta silabak bereiztuz fonemetara iritsi. Hori guztia, ikerketen eta analisisen bidez lortzen dute haurrek.

Metodo silabikoak, berriz, silabak hartzen ditu irakurketa prozesuaren oinarri. Silabak elkartuz hi-

tzak eta esaldiak osatzen dituzte. Esan liteke metodo mekanikoa dela, ez analitikoa.

Albisteak zer pentsa ematen du:

1.- Estatu batek erabaki beharko al luke ikastetxe bakoitzean zein irakurketa metodo erabili behar den?

2.- Zer erabaki lezake ikastetxe bateko eskola komunitateak bere hezkuntza proiektua ez bada, eta ondorioz, bere pedagogia metodoa?

3.- Zergatik egiten du estatuek une honetan publiko erabakia?

Guk beti pentsatu dugu ikerketak egitea ona dela, interes pedagogikoz eta ikuspegi objektiboz eginak baldin badaude behintzat.

Dena den, eskolan muturra gehiegi sartzeak ez dugu uste inongo mesederik egiten dionik hezkuntza sistemari. Ikastetxe baten

komunitatearentzat ezer garrantzitsurik baldin bada, bere hezkuntza proiektua da. Horrek markatzen ditu ikastetxearen norabidea, bere asmoak, etorkizunerako apostua, inguruarekiko gertutasuna, barruko eskola bizitza, kanporako proiektioa eta abar.

Nola sar liteke estatua ikastetxe bakoitzaren pedagogia metodoan?

Duela urte asko, Freinet pedagogoa Eskola Modernoa sortzen ari zen Frantziako sistema publikoaren barruan irakasle gisa lanean ari zela. Baina haren aurkako kanpaina handia bultzatu eta lanean ari zen zentroan aritzea debekatu zion Hezkuntza Ministerioak. Freinetek ez zuen onartu eta 1935ean bere eskola propioa ireki zuen.

Frantziar Hezkuntza Ministerioak ez al du ezer ikasi orduz geroztik?

kronika

Euskararen Eguna ospatuz, abendua festa giroan hasi zen, eta bukatu ere bai. Abenduren 3an BIGEk 12 ordu euskaraz ekimena antolatu zuen Bilbon eta hainbat ekitaldirekin ospatu zuten eguna. Antolatzaileen esanetan, asmoa garbia izan zen: haurrei eta haien gurasoei euskaraz bizitzea posible dela erakustea. BIGEkoak arduratuta daude haur askorentzat euskara lau hormen barruan gelditzen den irakasgai bat baino ez delako. Mugak horiek hautsi nahi dituzte. Ekimen honetako ekitaldiek euskarazko produkzioa handia eta kalitate handikoa dela erakusteko balio izan zuten. Abenduaren 22an, bestalde, Iruñea hartu zuen festa giroak. Sortzen-ikasbatuaz eta LAB sindikatuak besta antolatu zuten Nafarroako Gobernuak prestatu dituen aurrekontuak salatzeke.



Hizkuntz ereduen sistema 2007rako aldatu beharko du Jaurlaritzak

Abenduaren hasieran eztabaidatu zuten Eusko Legebiltzarrean gaur egun EAEko hezkuntza sisteman dagoen hizkuntz eredia, eta 2007. urteko otsaila baino lehen egungo sistema gainditzeko beharrezko lege egokitzapenak aurkeztu beharko ditu Hezkuntza Sailak.

Iazko ikasturte amaieran ezagutzera eman ziren datuen arabera, ikasle askok ez dute euskarazko beharrezko trebetasunik lortzen. Horrexegatik, egungo eredia gainditzeko beharra agerikoa da.

Ezker Abertzaleak (EAB) eraman zuen gaia Eusko Legebiltzarrera eta "egitura konponbidea" eskatu zuen.

Haatik, proposamena ez zen bere horretan onartu. Jatorrizko testuan eta Hirukoak egindako zuzenketetan oinarrituta, erdibideko proposamena izan zen onartu zena. PPK ez beste guztiek onartu zuten, eta gainera, PSE-EE proposamenaren alde agertzea ere gaizki ikusi zuen alderdi horrek, euren ustez "euskarak ez baitu bazterketarik jasaten".

PSE-EEK, berriz, PPK "ez duela ezertan aurrera egiten" erantzun zion, eta dena "nahasten" ari dela.

EAK pozez hartu zuen PSE-EEren aldeko jarrera hori, eta EB-Berdeak-ek ere taldeen arteko akordio zabala txalotu zuen. Aralarrek orain arteko zehaztugabeko egoera gainditzeko bidea ireki dela uste du. EAJ "beharrezko aldaketak nahiz lege ukituren bat egitearen alde agertu zen".

Alderdi politikoez gain, gizarte eragileak ere adi daude gai hori dela eta. Zentzu horretan, Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak adierazi duenez, "ezin dugu onartu urte gehiago pasatzea belaunaldi berriak euskaldundu gabe. Beraz, beranduenez, 2007a baino lehen, euskalduntzea ahalbideetako duen sistema indarrean jarri behar da". Ikastetxe guztietan ikasleak euskalduntzeko eredia sortu eta ezarri behar dela nabarmendu du. Era berean, helburu hori lehentasun politikoko gai bihurtzeko eskaera egin du.

Daitezkeen zientzi galdera guztiei erantzun ondotik ere, gure bizitza-arazoak ez ziratekeela ukituak ere izanen sumatzen dugu.

Ludwig Wittgenstein



0-3 urtekoek ezingo dute 7 ordu baino gehiago egon haur eskolan

Nafarroako haur eskola publikoetara joaten diren 0-3 urte bitarteko haurrek ezingo dute 7 ordu baino gehiago egon bertan. Normalean errespetatzen den ordu kopurua da, baina hemendik aurrera modu ofizialean arautua geldituko da 0-3 zikloari dagokion Foru Dekretua onartzen denean. Behin LOE onartuta, prozedura horri ekingo diote. Horrela, adin horretako haurrentzat dagoen eskaintza hezitzaile eta asistentzial sakanatua pixka bat berrantolatuta nahi da.

Herritarren eskaera atzera bota du gobernua

Nafarroako 66 udalek egindako lege proposamenari ezezkoa eman dio Nafarroako parlamentuak, UPN eta

CDN aurka agertu direlako. Aipatu udalek 0-3 urteko zikloaren ardura gobernua hartzeko eskaera egin zuten, plaza kopurua igotzeko eta kalitatea hobetzeko. Ezezko horrekin, "nafarren beharrei bizkar eman diela" adierazi dute udaletako ordezkariak.

Une honetan 0-3 urteko 68 zentro publiko daude Nafarroan eta beste zortzi Ongizate Sozialeko Departamentuaren barne daude. Horrez gain, 70 haurtzaindegi pribatu daude. 23 ikastetxe pribatutan eta Haur eta Lehen Hezkuntzako zortzi eskolatan ere 2 urteko haurrak eskolatzen dira.

Haur Hezkuntzako lehen zikloari bultzada bat emateko asmoz Foru Dekretu bat idatzi zuen administrazioak iaz, baina baliorik gabe gelditu zen LOCE ez zelako onartu. Horrenbestez, LOE onartzen denean, lehen aipatutako Foru Dekretua eginen du. Besteak beste, orain faltan botatzen duten proiektu pedagogiko komun bat definitu nahi dute.

Hezkuntza administrazioak 0-3 zikloaren izaera hezitzailea definitu nahi du, baina izaera asistentzialari uko egin gabe. Pedro Gonzalez Hezkuntza Departamentuko Berrikuntza eta Eskola Orientazio Zerbitzuko zuzendariaren ustez, "etapa hori hezitzailea da, adin horretan dena ikastea baita. Baina aldi berean, funtzio sozial garrantzitsua betetzen dute familientzat".

EEP Euskararen Erakunde Publikoak 2005eko lanen balorazioa egin du eta 2006ko lan ildoak zehaztu ere bai. Aurtengo ardatza arlo publikoan euskararen erabilera bultzatzea izanen da. Irakaskuntza publikoari dagokionez, iaz 33 hitzarmen izenpetu zirela nabarmendu du Max Brisson EEPko presidentek. Plangintza bat egin da eta horrekin euskara eta euskarazko irakaskuntza hedatu egingo omen dira. Dagoeneko 29 auzapezekin harremanetan dira. Lau eskolatan eta kolegio batean eredu elebiduna irekitzeko prest daude. Baiona-Angelua-Miarritz hiri elkargoari dagokionez, Angelun eta Miarritzen eskola elebidun bana irekiko da. Eskualdeen egitura hobetsiz egin dute plangintza. Halere, EEPk ez du euskararen irakaskuntza orokortzeko asmorik, ez du onartu eskola guztietan egitea eskaintza eta gurasoek erabakitzea zein eredu hautatu. Galdetu zitzaion ea hori aski ote den euskararen gainbehera gelditzeko eta euskal hiztun gehiago sortzeko. Erantzuna: "bakoitzaren askatasunean eta atxikimenduan oinarritzen den hizkuntza politika sortu nahi dugu".

GAIA

Nekazaritza eskolak

Biharko lehen sektorea prestatzen





Begiratu orokor bat

Hegaztien gripea, transgenikoak, globalizazioa... gizartea *dar-dar* dago, eta zer esanik ez nekazariak. Kanpoko produktuen uholdean, preziotan ezingo dute lehiatu bertako nekazariak. Zer zirrikitu ikusten dizkiote globalizazio honi? Eta, beraz, biharko nekazariak nolako beharko du izan? Nekazaritza eskolek zer prestakuntza ematen diete egoerari aurre egiteko?

Jo dugu Nafarroara, Iparraldera, EAERA; mundua etxean, eta etxean hiru mundu baititugu.

Eskolarik eta ikaslerik gehien, Iparraldean

Sei nekazaritza eskola daude Iparraldean. Ikasleak, berriz, 1.230 dira (Hegoaldean 407 daude). Hala ere, nekazari kopurua txikitu denez, Iparraldean nekazaritza eskolek bizirik jarraitzeko behar izan dute beste titulazio batzuk eskaini, laborantza hutsaz gain. Neurri hori hartzen lehenak, jakina, hiritik eta kostaldetik hurbilen dauden eskolak izan dira. Ikasleak erakartzeko sail berri horiek, gehienak, ingurumenari lotuta daude, arrakasta izugarria baitute, batez ere hiritarengan.

Laborantza sektoreari dagokionez, kontuan izan behar Iparraldean bizi duten administrazio egoera: Pirinio Atlantikoko departamendu guztirako, laborantza ganbera bakarra zen, Pauen. Euskal Laborarien Batasuna sindikatuak 10 urtez jardun zuen haiekin lanean, baina ikusirik ganberak Biarnoko ekoizle handiei laguntzen indar gehiago egiten zuela, Euskal Herriko Laborantza Ganbara sortzea erabaki zuten. Oraindik ez du ofizialtasunik, baina jendeak jarritako diruz etxea erai-

ki zuten iaz eta zazpi lanpostu sortu dituzte.

Euskal Autonomia Erkidegoa: etengabeko formazioa eta "Gaztenek" zerbitzua

EAEko nekazaritza eskolak Mendikoi zentroak kudeatzen ditu, eta Jaurritako Nekazaritza Sailari lotuta daude (ez Hezkuntza Sailari). Horrek abantaila argiak ditu, sektorea eta eskola lotzen baitira: ikasleok lan eskaintzen edota diru laguntzen berri zuzena jasotzen dute. Bestalde, aktiboan dauden nekazariak etengabeko formazioa eskaintzen diete eskolek.

Gazteak sektorean sartzeko proiektu berri bat jarri dute martxan eskola horietan: "Gaztenek". Helburua da beren proiektu propioa sortzen laguntzea, hasierako kezkei erantzunez eta osatzen lagunduz. Diruz ere laguntzen da. Belaunaldi erreleboa ziurtatu dadin, datozen hamar urteotarako zera jarri dute helburu: urtero sektorean 100 sartzeko berri izatea. Urtebete da Gaztenek martxan dela eta pozik daude, aurtengoan kopuru hori gainditu baitute.

Eskolan baserritarrak erdaraz

Francoren garaietan, baserritarrek eskolan ikasten zuten erdaraz.

Orain eskolan erdaraz ikasten dute, baserriari buruz.

Nafarroako Gobernuak euskararekiko duen politika jakina da; Nafarroan nekazaritza eskola bakarra dago, Atarrabian, eta zentro publikoa da. Ikasle euskaldunak bada (%25 edo), irakasle batzuk euskaldunak dira, baina zuzendaritzak ez du planteatu ere egiten hizkuntzaren afera.

Iparraldeko sei eskolek ere, Laborantza Ministerioari lotuak direlarik, batek ere ez du euskarazko irakaskuntzarik. Euskara arlo gehigarri moduan eskaintzen dute; aurtan Donibane Garaziko eskolak, ikastarlo guztietan gai bat euskaraz eskainiko du. Euskaraz dakiten ikasle kopurua ere bada arazo, ez baitira taldea osatzera iristen.

EAEn formazio osoa euskaraz Fraisoren soilik eskaintzen da, abeltzaintza eta lorezaintza zikloetan. Gainerakoan, euskaraz praktikatan egiten da: ikasleak taldeka jarri eta partaide guztiak euskaldunak badira, horiei euskaraz mintzatzen zaie irakaslea. Presentzia murriztuz honen arrazoia omen da, ikasle euskaldunak ez direla ikasgela bat osatzera heltzen, edota irakasle batzuk euskaraz irakasteko formazioa falta dutela. Aurtan euskalduntzeko zazpi pertsona liberatu dituzte.

G



Fraisoro: *MENDIKOI*

- Nekazaritza eta abeltzaintzako enpresen kudeaketa eta antolamendua
- Abeltzaintzako ustiategiak
- Lorezaintza

Senpere: *SAINT CHRISTOPHE*

- Arraintketa
- Ingurumena
- Abere basen zainketa

Derio: *MENDIKOI*




- Baliabide naturalen eta paisajistikoen kudeaketa
- Lorezaintza
- Nekazaritzako ustiategi intentsiboak

Hazparne: *ARMAND DAVID*

- Baratzezaintza
- Ingurumena
- Tresnagintza

Hazparne: *CFA (publikoa)*

- Laborantza
- Baratzezaintza
- Ingurumena



Donapaule: *JEAN ERRECART*

- Laborantza
- Janari saltzea
- Ingurumena

Arkaute: *MENDIKOI*



- Nekazaritza eta abeltzaintzako enpresen kudeaketa
- Lorezaintza
- Nekazaritzako ustiategi estensiboak

Maule: *SOULE*

- Laborantza
- Abere ttipien (maskotak) saltzea eta artatzea
- Nekazalguneetako zerbitzuak

Atarrabia: *NEKAZARITZA ETA BASOZAINZAKO BHI*



- Nekazaritzako ustiategi estentsiboak eta abeltzaintza
- Basozaintza eta ingurumen zaintza
- Lorezaintza
- Nekazaritza eta abeltzaintzako enpresen kudeaketa
- Baliabide naturalen eta paisajistikoen kudeaketa
- Haztegi eta lorategietako langile

Donibane Garazi: *FRANTSESENIA*




- Laborantza
- Nekazalguneetako zerbitzuak

Euskal Herriko datuak



Gaurko ikasle, biharko nekazari

- **Ikasle kopurua**
Euskal Herrian **1.637** ikasle daude.



- **Neska/mutil.** Hegoaldean, ikasleen % 24 dira emakumeak.



• Biharko nekazaria: zertan izango da ezberdin?

“Formazio hobea izango du eta aisago ikasiko du beharrezkoa zaion edozer. Mentalitatea aldatuko da: enpresari buruaz jokatu beharko du, eta alor ekonomikoan trebatu (bankuak, kreditu sistemak...)” (Miguel Angel Jordan, Atarrabiako Nekazaritza eta Basozaintza eskolako zuzendaria).

“Erraztasun gehiago izango du inbertsio handitan sartzeko, teknologian parte hartzeko, aldaketak egiteko” (Eli Gorospe, EAeko Mendikoi zentroko formazio arduraduna).

“Beste kontzientzia bat beharko du ukan: elkarte mailan lan egin, eta borrokatu. Orain artio gauzak askitito azkar saltzen ziren, laguntzak zeuden, anitz tresneria, bakotxak berea erosten zuen. Honoko urteetan gauzak ez dira hoin errez izaten ahal, eta beharko dute elkarrekin lan gehiago egin” (Frantxoa Tambourin, Donibane Garaiziko Frantsesenia eskolako lehendakaria).

“Lan moldeak gogoetatu beharko dituzte: elkarturik nola arindu lana, aisialdirako denbora izateko. Bestela gizartean bi talde izanen dira: nekazariak, urtean egunero eta egun guziz lanean direnak, eta gainerako langileak, asteen 35 lan oren eta aisialdia dutenak. Bestetik, azken gertakariak gizartean zabaldu duten mesfidantza dela-eta, laborariak saltzeko moldeetan eta eroslearekiko harremanetan zera aldatu beharko du: denbora eman beharko du esplikatzeko nola egin duen produktu hori” (Cecile Crouspeyre, Frantsesenia eskolako zuzendaria).

• **Ikasleen profila**

Iparralde: mendialdean, ikasle gehienak laborari seme-alabak dira. Zenbat eta kostalderago, gehiago dira ikasle hiritarrak, nekazari bizitzaren ikuspegi idealizatu samarraz agian, eskolara jotzen dutenak.

EAE: Formakuzio arautura hiritar gehiago dator, sektorean txertatzeko ideia argiarekin. Etengabeko formazioan (profesionalei zuzendua) baserritarak dira gehienak. Formazio “trinkoan” (ikastaro espezifikoko) nekazariak eta hiritarrak paretu dira.

Nafarroa: ikasle gehienak hiritarrak dira, Iruñerrikoak. Gaia gustuko dutelako datoz, baina gero unibertsitatean jarraitzen dute, edo beste edozer-tan lanean.



Miguel Angel JORDAN,
Mikel LORDA

ATARRABIAKO NEKAZARITZA ETA BASOZAINITZA BHIKO
ZUZENDARIA ETA IRAKASLEA

Zer irakurketa egiten duzue Nafarroako nekazaritza sektoreaz? Eta beraz, zer bide eskaini nahi dizkiezue ikasleei?

M. A. Jordan.- Nazioarteko banku bateko adituak jardunaldi batzuetan argi esan zigun non gauden: Europara sartuko diren produktuen inbasioa izugarria izango da, eta hor ezin dugu lehiatu. Kultibo handiak (zerealak, baratze-gintza, frutak), nonbait, Asian eta Hego Amerikan ekoiztuko dira. Prezio-tan ezin dugu horiekin lehiatu.

Nafarroan zer egin? Batetik, jadanik ari dira enpresa erraldoiak zabaltzen, barazki izozkailuak esaterako. Enpresa horiek ja ari zaizkigu langileak eskatzen. Gazteak enpresa handi horietarako presta genitzake. Eta beste bidea da, enpresa txiki mailan (autonomo gisan, edo bizpahiru langileko enpresa moduan), hemen bertako produktu zehatzetan espezializatzea.

M. Lorda.- Kalitatezko produktuak egitea, enpresa multinazional handi horiekin lehiatzeko. Nekazaritza ekologikoa ildo horretatik doa, eta eskolan hasiak gara ekoizpen molde hori ere lantzen, etorkizunerako garrantzitsua izango dela uste baitugu.

“Lotsagarria da Tafallatik beherako ikaslerik ez etortzea hona, lan eskaintza gehiena handik datorkigunean”

M. A. Jordan.- Horrez gain, etorkizun hurbilean nekazariok beste aktibitate batzuk ere guregain hartzen has gaitzake, hala nola, ingurumen arloa. Nork zainduko ditu Pirinioak? Bada bertan bizi direnek. Beraz, ingurumen zaintza bihur dadila bertako biztanleen egitekoa, eta jaso dezate-la diru ordaina gizarteari egiten dioten ekarpen horren truke.

Zuen eskolara lan eskaintza asko dator. Aldiz, zuek ikasleak lortzeko lanak dituzue. Nola azaltzen duzue?

M. A. Jordan.- Eskolan badugu lan poltsa bat, kanpotik datozen eskaintzez osatua. Une honetan lan eskaintza, eskaria baino altuagoa da. Ez dugu lanpostu horietarako ikaslerik topatzen, askok unibertsitate ikasketekin jarraitzen dutelako, beste asko lanean hasten direlako beste edozein sektoretan, eta gainerakoak XXI. mendeko umeak direlako, inoiz heldu nahi ez dutenak.

M. Lorda.- Gure ikasle asko hirigunetik datoz, eta izatez harremanik ere ez dute nekazaritza sektorearekin.

M. A. Jordan.- Nekazari guraso askok, ez du inola ere nahi bere seme-alabak lanbide honekin jarrai dezan. Ulergarria ere bada, nekazariak gaur beste profesional gehienek baino lan baldintza okerragoak baitituzte: seguritate sozialeko sistematik hasi eta soldata baxuetaraino. Hor aldaketak erradikala izan behar du. Gobernuek orain artean hartutako neurriak petatxuak izan dira. Politika erasokorragoa behar

da, eta nekazari izateagatik (ingurumena zaintzeagatik azkenean) laguntza zuzenak eman behar zaizkie pertsona horiei, halakoxe garbi, diru laguntzatan eta urrutiko txanponetan galdu beharrean. Nekazariok batez besteko errenta nazionalak ziurtatuta izan behar ditugu, bestela jendeak martxa egingo du.

M. Lorda.- Bestetik, Lanbide Heziketari balioa ematen ez zaion bitartean, eta guztia gaztetxoak unibertsitatera joan daitezen bideratzen den bitartean, jai dugu. Hezkuntza Departamentuko Orientazio Zerbitzuak guri ez digu ikasle bat bera ere bidali, gaztetxoei ez zaie gure eskolaren berri ematen, bide profesional duin bat gehiago moduan. Ikastetxeen artean lehiakortasun handia dago, zentro handiek jaso nahi dituzte ikasle guztiak, eta horietara bideratzen dira. Lotsagarria da Tafallatik beherako ez ikaslerik etortzea hona, lan eskaintza gehiena handik datorkigunean!

M. A. Jordan.- Gurasoen mentalitatean unibertsitateak du lehentasuna, eta horrek zentzu bat ere badu, hasteko administrazioa bera delako lanpostu publikoetarako titulazioak finkatu gabe dituenak. Basozain posturako administrazioari berdin zion ingeniaria edo biologoa izan. Asko borrokatu behar izan genuen lanpostu horren oposaketak egiterakoan basozain titulua izatea derrigorrezko bihur zedin. Administrazioak ardura handia du; izan ere, bera hasten bada Lanbide Heziketako titulazioak exijitzen, enpresa pribatuak ere errepertuko dute profesional horietan.

Euskal Autonomia Erkidegoa



Eli GOROSPE

EAEko MENDIKOI ZENTROKO
FORMAZIO ARDURADUNA

Zer irakurketa egiten duzu Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza sektoreaz?

Nekazaritza sektorea desberdina da hiru probintzietan, eta berdin sektoreka hartuz gero. Baina orokorki gero eta espezializatuagoa dela esango nuke. Beraz, aurrera jarraituko duten esplotazioak oso espezializatuta daude, izango dira, eta teknologian sartuta daudenak. Esplotazio txikiek edo beste ekintza moduan dituztenek, dedikazio bat izaten segiko dute, baina ez dira profesionalak izango. Eta ekoizpen sistemak aldatuko direla uste dut. Adibidez, txerriekin orain ikusten da estensiboan funtzionatzen duela eta produktua kokatzen dela. Ekoizpen ekologikoa ere bultzatzen ari da.

Sektoreka egoera arrunt aldatzen dela diozu. Zehaztuko al zenuke pixka bat?

Sektore batzuk egonkortasuna lortu dute eta aurrera egiteko moduan

“Sortzen duzun produktua kalitatezkoa izatea, eta merkatuan produktu hori bereiztea lortzea da helburua”

daude: ardia gaztagintzari lotuta, frutagintzan mahatsa (ardotarako zeintxakolinetarako), eta baratze gintza (inbertsio handiak eta teknifikatuak egiten baitira, eta kalitatezko produktu hori gero merkatuan errekonozitu egiten da).

Beste sektore batzuk aldaketa handien prozesuan daude, behi sektorea esaterako: esplotazioak gutxitu dira, handitu, teknifikatu eta behi buruak gehitu.

Eta azkenik, zenbait sektoretan beste labore batzuk bilatu beharko direla ikusten da. Arabako lautadan kili-kolo daude erremolatxa eta patata. Europari lotuta daude, eta hor gora-behera handiak daude. Gutxi barru horiek ordezkatzeko beste labore batzuk sartuko direla suposatzen dut.

Errioxako aktibitatea, berriz, gero eta gorago doa: inbertsio handiak egi-

ten dira, produkzio handiak dauzkagu, produktuak aitorpen bat dauka eta merkatuan ondo kokatzen da.

Basogintzan kanpoko produktuak barnekoari arazo asko sortzen dizkio. Prezioa gero eta gutxiago ordaintzen da. Jabeek, beraz, orain mantendu egiten dute, eta ez saldu. Ikusi egin behar sektorea egonkortzen den edo ez.

Beraz, zuek nekazarien formazioan, zertan egin nahi duzue indar?

Sortzen duzun produktua kalitatezkoa izan dadila, prezioan ezingo baituzu lehiatu beste ekoizle batzuekin (adibidez Almeriakoekin). Eta azken helburua zera da: kalitatezko produktu hori merkatuan bereiztea lortzea. Garestiagoa izan arren, erosleak kalitate hori aitortu egiten baitu eta orduan ez zaio axola ordaintzea.



Iparraldea



Frantxo TAMBOURIN

DONIBANE GARAZIKO FRANTSESENIA ELKARTEKO
LEHENDAKARIA

Zein da Iparraldean nekazaritzaren egoeraz egiten duzuen irakurketa eta, beraz, horri erantzuteko nola planteatu nahi duzue eskola?

F. Tambourin.- Iparraldean, Frantzia guzian bezala, laborari kopurua ttipitzen ari da, baina hemen halare hobeki segidatzen da. Aldeak badira: gune batzuetan (Garazin, Baigorri) anitz etxalde bizi dira eta gazte andana plantatzen. Baina Amikuze kostaldera zenbat eta gehiago joan, etxaldeak handiago.

Etxalde ttipietan bizia egitekoz behar da etxeko mozkina atera, esnetegietarat-edo zuzenki saltzeko orde. Guk nahi duguna, laborantzako eskola batek gazteei buruz egin dezan da, erakustea mozkin hori ateratzen, sail berezi batzuen bidez (esnea gaztatzea, ahateki eta txerriki mozkina ateratzea). Hemen ditugun puntu azkarrak dira sor markaz diren produktuak (Irulegiko Arnoa, Iratigasma, Ezpeletako piperra): horiek dira zure ekoizpenak ongi baliatzeko manierak, eta ekoizpen horiek ez dira beste nonbaiten hola egiten ahal. Erran nahi du ez garela kantitatez ari, ari garela kalitateari, eta egin ahala eza-gupen ona ematea gure kalitateari.



Cecile MONACO-CROUSPEYRE

DONIBANE GARAZIKO FRANTSESENIA ESKOLAKO
ZUZENDARIA

C. Monaco.- Gure irakaskuntzaren eta proiektuaren mamia da, ahal bezainbat biztanle atxikitzea mendialde honetan. Eta biztanleak atxikitzeko, behar da etxaldeak bizirik atxiki. Erran nahi du etxalde ttipietatik behar dela bizi, familia baten biziarazteko doa atera. Guk ez diegu beste molde bateko biderik erakutsi nahi gazteei eta erran behar dutela beti eta gehiago abere ezarri, beti eta lur gehiago berenganatu, zeren puntu batetik goiti beren buruaren aurka ari dira: behar dutelako gehiago gastu egin, gehiago tresnatu



eta beraz, nahiz anitz produktu ukan, hondarrean gelditzen dena ez da gehiago.

Bestetik, etxaldeak bizirik izateak erran nahi du ere laborariak behar dutela elkarrekin bizi, elkartean lan egin. Baina ere onartu beste gizarte parte bat ere badela, badirela beste ofizioak, badirela zerbitzuak, badirela kanpotik jinak, eta denek elkarrekin behar dugula aitzina jo, eta ez dela bakarrik laborari ikuspegi batekin segitzen ahal. Hor-takotz, irakaskuntzan saiatzen gara gazteek gizarteari eta bakoitzaren ingurumenari kasu ematen eta egituretan eta engaiatzen, sartzen.

Pirinio Atlantikoko departamenduan, laborantzako gazte gehien plantatzen duzuenak zuek zarete, mendialde honetakoak (Baigorri, Garazi, Iholdikoak).

C. Monaco.- Hori argi eta garbi da kulturari lotua dela, guretzat ez da beste arrazoirik. Etxeari atxikimen hori, lurrari atxikimen hori, kulturaz da. Hemen arrunt lur gutti gertatzen da saltzeko, nehorik ez du saldu nahi. Alde on hori badugu. Beste eskualde batzuetakoekin mintzatuz, dudatzen dute, erraten dute "sobera kultura azkarra duzue



“Gure proiektuaren mamia da, ahal bezainbat biztanle atxikitzea mendialde honetan, erran nahi du etxalde ttipietatik behar dela familia baten biziartzeko doia atera”

eta ez da zinez gaztearen proiektua, bere burua sentitzen du bortxatua etxalde bati lotzeko”. Lehenago behar bada buraso batzuk bortxatzen zuten, orain erraten ahal dugu burasoek hautu osoa uzten dietela beren seme-alabei, baina badela hori, etxaldeari atxiki-mendu hori. Etxean egon beharra zen seme-alabak bidez aldatzen badu eta etxetik joan, anitzetan gertatzen da beste haurride bat itzultzen dela etxera, etxea ez uzteko.

Mementoan mantentzen dugu oraino etxalde ttipietako bizitza, baina egia da baditugula ardurak. Laborantza eskolatan ikasle kopurua zinez apaldu da, eta apaltze hori iraunkorra izanen ote den edo zenbat atxikiko dugun ez dakigu. Egun guztietako borroka da.

Txiki izanez bizitzea, hori gaurko globalizazioaren aurka doan printzipioa da. Kontrakorik ez?

C. Monaco.- Beste eskola zenbaitentzat sobera engaiatuak gara, erakusten duguna da hemen lotzea. Administrazio mailan ere, duela zenbait urte Laborantza Ministerioko ordezkariak erraten ziguten erokeria zela: gazteei arriskuak harrarazten genizkiela hola-ko etxalde ttipietan plantatuz, ez zutela bizibiderik ukanen. Orain ohartzen dira etxalde ttipietan familiak ongi bizi direla, eta etxalde handiagoetan badirela diru nekeziak.

Gure eskolan ere, ikasleetan badugu denetarik, burasoetan berdin (nahiz eta etxalde ttipien zaintzea denek ikusten duten ongi) eta guk behar dugu biziki kasu eman horri. Beharbada

batzuek ez dute ere ahalik Europa edo munduz gogoetatzeko, ez astirik ez eskolarik berrien segitzeko. Horretan ere behar dira errespetatu. Baina egia da administrazioa zein sindikatuak ere baliatzen direla horretaz, nahi duten biderat emateko. Gure lana da bide guztiak esplikatzea, eta gero ikasleak hautua egiten du. Zoritxarrez baditugu ikasle batzuk zernahi abere ezartzen dutenak, “produktibismoan” sartu direnak, baina denek ukan dute informazio bera eta gero hautua berena da.

Ez duzue etxalderik ez lurrik. Gainera nahiago duzue hala, pedagogikoki eta proiektu gisa ere.

C. Monaco.- Guk lan egiten dugu laborari sare batekin, buraso ohi eta ikasle ohiekin egina dugun sare batekin. Ikasleak joaten dira gutxienez astean behin etxalde batzuetarat, ikustera, gogoetatzera nola egin dituzten hautuak. Eta badugu hitzarmen bat gure ikasle ohi batekin ere (bere etxaldea eskolatik 10 minutura dago), eta hala ikasle-irakasleak joaten dira nahi dutelarik praktikaren egitera.

Beraz, eskolak etxalde bat ukateak alde onak baditu (entseguak egiten ahal dira), baina beti etxalde bera da. Aldiz, guk sarean eramaten ditugu adibide desberdinen ikustera, eta produktu desberdinen erakustera. Zeren ikasle gehienek hazkuntzan ari nahi dute, baina hazkuntzarekin bakarrik etxalde gutxi ateratzen da aurrera; behar dute beste diru iturri bat, beste eginbide bat (izan dadin behi hazkuntza, edo ahate, edo sagartze). Helburua da gure ikasle-

ei erakustea zer proiektu egiten ahal den, eta laborariekin mintzatzea eta galderak egitea zertarako egin duten hori, zer alde on eta zer txar dituen. Zeren puntako teknika irakastea baino, gure helburua gehiago da irakastea gogoetatzeko, eztabaidatzeko.

Donibane Garaziko FRANTSESENIA: herriko laborarien proiektua

* **Administrazio kontseilua:** ikasle ohiek, gurasoek eta laborantza egituretako ordezkariak osatzen dute. 18 kide dira.

* **Sortu:** 1953an, Aita Mongaston apaizak. Igande arratsaldetan hasi zen eskolak ematen.

* **Frantsesenia elkarte** eratu zuen laster, departamenduko ordezkariarekin eta 32 herritako auzapezekin. Eskolaren berezitasuna, duen izaera herritarra da.

* **Emile Larre** izan zen lehen zuzendaria (*Herria* astekariaren buru izana urtetan).

* **Alokatutako egoitzatan** ari behar izan dute, batetik bestera (Garazi, Donazaharre, Baigorri, Uharte-Garazi...).

* **Beren eskola** 1999an eraiki zuten. Lurren erosteko dirua 32 herri horiek jarri zuten.

marga iñiguez

ELKARRIZKETA

Filosofoa, pedagogoa eta sormenean aditua

**// Sormena premia larri bat da
gaurko gizartean //**



//
Industrializaziotik
informazioaren
gizartera pasa gara,
ezagutzaren
gizartera, baina
hurrengo pausoa
irudimenaren
gizartea da. Jada ez
da aski izango
ezagutza
edukitzearekin;
irudimena beharko da
soluzioa emateko,
aurreikusteko, eta
horren harrapatuta
gauzkan mundu
mailako zurrunbilo
honetatik
irteteko



1965az geroztik prozesu sortzaileen ikerketan eta sormenaren garapenean aritu da, eremu askotan: enpresa eta erakundeetan, gobernuetan, komunikabideetan, irakasleen prestakuntzan, artean, zein garapen eta hazkunde pertsonalerako planetan.

13 urtean TVEko haurren zein nerabeen programetako aholkulari pedagogikoa izan zen, hala nola, "Pista libre", "La bola de cristal" edo "Espinete" saioretan.

Bere lana 16 herritan burutu du (AEB, Mexiko, Kolonia, Argentina...). Baina lan gehien Euskal Herrian egin du Margak (1973an hasi zen hona etortzen).

Extremadurako Imajinazioaren Gizarteko Adituen Kontseiluko kide fundatzailea da.

Sormenean, zer alderdik eragiten dute?

Sormena oso gertaera konplexua da. Batetik, biologikoki garun hirukoitzarekin mugitzen garelako: alde errektiliarra (egitea, oraina), linbikoa (emotionala, iragana) eta neokortesa duena (pentsatzea, geroa). Beraz, ideiak etor daitezke pentsatetik, egitetik, edo sentitzetik.

Baina gainera, sortzeko orduan eragina du, baita ere, aurreko belaunaldietatik odolean metabolizatuta dakarzun guztiak, eta bizitzan zehar fetu arotik hasita jasotzen zoazen informazio horrek guztiak, zure datuen barne artxiboa osatzen baitute. Sormenaren iturburua ahaztu gabe: pasioa, desira sakona. Eta horri guztiari gehitzen zaizkio zalantzak, beldurrak, egoeren osotasun bat, modu batean edo bestean sortzea dakarrena.

"Sormena" diozunean, zertaz ari zara?

Pertsonak eta herriek eraldatzeko, aurreikusteko, ikuspegi berezi eta propio bat edukitzeko, eta arazo berririk sortu gabe arazoei soluzioa emateko dugun gaitasunaz.

Sormena eskubide bat da, eta premia larri bat. Sormen propioa edukitzea eskubide bat da, adierazpen askatasunaz haratago doana, eta Konstituzioek jaso behar lukete. Baina gainera, premia larri bat da, mundu mailako arazo zerrenda ikusita. Pobreziari irtenbidea emateko, bake arazoei, ekologia arazoei erantzuteko, ezinbestekoa da lehenbailehen soluzio berriak bilatzea, eta irudimena edukitzea horiei heldu ahal izateko. Hezkuntza sistemak, politikoek, gizarteak orokorrean herritarren talentua aprobetxatzen ez badu, ardura gabekeria hutsa izango da, zabarkeriaz gainera. Benetan inporta duena barne produktu "ez brutoa" edo "ez gordina" da; irudimena, alegia. Industrializaziotik informazioaren gizartera pasa gara, ezagutzaren gizartera, baina hurrengo pausoa irudimenaren gizartea da. Jada ez da aski izango ezagutza edukitzearekin; irudimena beharko da soluzioa

emateko, aurreikusteko, eta horren harapatuta gauzkan mundu mailako zurrunbilo honetatik irteteko.

Eta horretan, eskolak zeri heldu behar dio une honetan?

Hasteko, jakin irakaslearen funtzio hura, informazioa ematearena, jada zentzugabea dela. Informazioa emateko bitarteko teknologiko guztiak ditugu. Une zoragarria da hau beste hezkuntza bat planteatzeko, zeinean irakaslea benetan irakasle izango den: ikaslea bere baitara hurbiltzen duena, bestearengana, bizitzara hurbiltzen duena. Eta ez esateko zer egin behar duen bizitzarekin edo bestearekin, baikik eta irakasteko konturatzen zer den gertatzen zaiona, zer gertatzen zaion besteari, eta zer egiten duen horrekin guztiarekin. Irakasteko ezberdina dela pentsatzea, egitea, sentitzea, eta jakiteko zer egin horrekin. Gure garun hirukoitza lantzen irakasteko garaia da: ikasleak jakin dezala orainean egoten, soluzioa ematen, eta jakin dezala memoria pertsonal eta kolektiboaz baliatzen ondare hori galdu gabe, eta etorkizunerantz jotzen. Eta bi hemisferioetatik landu: eskuinetik, logika eta sekuentzia ematen digunetik, eta ezkerretik, perfektzioa, irudimena, sintesia ematen digunetik. Alegia, garen horren erabateko garapenera iritsi.

Bakoitzaren singularitasuna garatzera iristea, beraz...

Bai. Pertsona bakoitza bakarra eta errepika ezina da, bai biologikoki, eta bai bizitzan zehar osatzen duen barne artxiboagatik. Eta ikasleak hain berezia den barne artxibo horrekin konektatzen ikasten badu, eta besteak ere bere artxibo berezia duela ikasten badu, oso garrantzitsua den gauza batean sartuko gara: norberak, izaki sakratu eta errepika ezina den aldetik, daukan arduran (eta hori "nik paso egiten dut" edo "niri denak bost axola" bezalako jarreraren justu kontrakoa da), eta besteari zor zaion errespetuan.

Badira sormen frogak, non jendeak berehalaxe ikusten duen norberak



egin duena beste inori ez zaiola bururatu 40 laguneko talde batean, edo alderantziz, denoi 4 ideia berak otu zaizkigula. Atentatua iruditzen zaitez lantzea, etengabe eta frogekin, pertsona eta herri bakoitzaren singularitasuna. Gaitz larria da, talentua galtzea baita.

Zergatik ez da lantzen singularitasuna?

Uste dugulako ezagutzarako eta bizi esperientziarako guztiok dugun sarbidea bera dela. Bakoitzak bere erreminta kaxa berezia dakar. Arazo nagusia hau da: denek kaxa berbera edukitzea nahi dugu, nor bere botere propioekin gorenera iritsi beharrean. "Aniztasunaz" hitz egitea oso modan dago, baina aniztasuna ez da gelan jaiterri askotariko haurrak izatea soilik. Gutako bakoitzarengan, barne aniztasuna izugarria da.

Zertarako sormena?

Bizitzarako. Artea zoragarria da, baina bizitzaren suzedaneoa da, benetakoa artea bizitza bera da. Niretzat, ekintza sortzaile behinena samurtasuna da, non ezer ez den errepikatzen. Eta samurtasunera zure alde hauskorretik iristen zara, ez handiustearen edo gai-

lentearen aldetik. Samurtasuna zuk zure hauskortasuna eta bestearena onartzen dituzunean sortzen da; bien hauskortasun horretan ematen da samurtasuna. Niretzat, eguneroko ekintzarik garrantzitsuenak da.

Gure alde hauskorretik sortzen dugula diozu, eta ez alde gailentzaitetik. Zergatik?

Sortze bidean jartzeko, lau eremutan sartu behar delako.

Bata da "ezikastea eta askatzea". Ideiek iraungipen data dute, eta badira ezikasi behar diren jokabideak ere (nahiz eta agian, aurrerago berriz ere hartu behar izan). Ezagutza edo jokabide gisa atzean gelditu zaizuna askatu egin behar da: ezin dugu gure eskolatan oraindik atomoa banaezina dela esaten segi, edo zientzian dena dela "kausa-efektua". Usteldu dena askatu egin behar da hutsuneak izateko, berriari leku egiteko, norberaren originaltasunarentzat espazioak izateko.

Beste igarobide bat ziurgabetasuna da, zalantzaren ziurtasuna. Galderak egin ezean, ez dago aurrera egiterik. Greziar filosofo baten esanetan, bere buruari galderarik egiten ez dion pertsona hilik dago bizitzan.

// Nora goaz hezkuntza triunfalista honekin? Nola nahi dugu, gero, gizarteak eduki dezan behar duena, alegia: arazo berririk sortu gabe proiektatzen jakingo duen jendea? Neska-mutilek ikasi behar dute ez dela ezertxo ere gertatzen porrot egiteagatik, ez duzula zeure buruaz beste egin beharrik. Ziurtasunen heziketa batean gaude, eta ziurtasuna baino gauza ez zientifikoagorik ez dago

//

Beste igarobide bat hanka sartzeak dira, eta horiei bi modutan egin genietzaieke aurre: soinean zama moduan hartuz, eta blokeatu egingo gaitu horrek, edota aurkikuntza berrietara garamatzen giltza moduan hartuz. Zientzia eta teknologia ere ate berriak zabaldu dituzten okerrez beteta daude.

Laugarren igarobidea eraldaketak dira. Unibertsoan dena aldatzen da, harien ere barne mugimendua dute. Ezin gara kukutu, "kieto" jarri, esanez: "Gauzak halaxe dira, hala izan direlako beti".

Okerrak eta ziurgabetasuna. Nola landu hezkuntzan?

Okerrak ez zigortuz. Ikasleak "zuzena" ez den zerbait egiten duenean, berarekin hitz egin, eta pentsa dezala: zer ikasi dut huts honekin? Zenbat ate zabaltzen dizkit, norantz narama?

Edisonek, bonbilla lortzeko, 990 aldiz egin zuen porrot. Galdetu omen zioten: "Eta horrek ez zintuen nekatu?", eta berak erantzun: "Ez, zoragarria da! Badakizkit bonbilla bat ez egiteko 990 modu".

Aldiz, nora goaz hezkuntza triunfalista honekin? Nola nahi dugu, gero, gizarteak eduki dezan behar duena, alegia: arazo berririk sortu gabe proiektatzen jakingo duen jendea? Neska-mutilek ikasi behar dute ez dela ezertxo ere gertatzen porrot egiteagatik, ez duzula zeure buruaz beste egin beharrik. Ziurtasunen heziketa batean gaude, eta ziurtasuna baino gauza ez zientifikoagorik ez dago

tatzen jakingo duen jendea? Neska-mutilek ikasi behar dute ez dela ezertxo ere gertatzen porrot egiteagatik, ez duzula zeure buruaz beste egin beharrik. Gainera, datorren gizartearen dena horren aleatorioa denez, ezin dugu beti zuzen erantzun, huts egitea landu behar da. Ziurtasunen heziketa batean gaude, eta ziurtasunak baino gauza ez zientifikoagorik ez dago. "Baldin eta" esaten hasi beharko dugu, eta hipotesien zein alternatiba askoren gainean lan egiten hasi.

Horretarako, zer da zuk proposatzen duzuna?

Esaterako ebaluazioetan, erantzun zuzenak bi edo hiru behintzat izatea, eta ez bakarra. Ikasleari hainbat aukera ikusten laguntzeko moduko frogak jarri behar dira, eta ez "a ala b" gisako frogak objektibo horiek, subliminalki ematen duten mezua haxe baita: gauza guztiak zuriak ala beltzak dira. Gisa honetako galderak ere egin daitezke: "Idatzi 30 egoera, non erantzuna beti 5 den", ikasleak planteatu behar izateko zeresan nahi duen 5-ek. Edo jolas hipotetikoak egin, esaterako "zer gertatuko litzateke... lurrik ez balego" edo "inoiz ez balu euririk egingo". Alegia, pentsatzen irakatsi, baina arlo guztietan eta etengabe.



Planteamendu baten “misiolari” moduan aritu izan naiz, urte askoan, eta orain praktikara eramaten ari gara zenbait unibertsitatetan. Kontua zera da: ebaluazioan, landutako gaia zernahi dela ere, galdera hau jartzen da beti: “Eta zuk nola ikusten duzu?”. Esaterako, “grabitatea: zuk nola ikusten duzu? Zer iritzi duzu grabitateaz?”. Kuestionatu gabe apunteetan dagoena soilik esaten badute, bihar ez da ezer deskubritzeko kapaz den ikertzailerik izango. Ikasleekin adostu egiten da, galdera horri erantzun ezean zenbat puntu kenduko diren (ez da erantzuna bera ebaluatzen, ez baitago erantzun “oke-rik”).

Ikasturtean zehar, berriz, planteadaitekeena da ikasle bakoitzak proiektu bat sortu beharko duela gela horri begira: izan daiteke hitzaldi bat nahi duen gaiari buruz (ez du zertan izan gelan lantzen den gai bat), edo tresna bat, edo antzezlan bat... zerbait, asmatzaile moduan. Hemendik pasatzerakoan zure ekarpena utz dezazun. Kolonbiako oso unibertsitate garrantzitsu batean, arkitekto titulua lortzeko ikasleek zerbait ekarri behar diote arkitekturari, lehen ez dagoena: material sistema berri bat aurkitzea izan daiteke, edo ateak irekitzeko sistema berri bat.

Nola ikusten duzu irakaslearen papera eskolan?

Oso zaila du. Kontraesanen munduan bizi gara: etxean elkarbizitza ona nahi dugu, eta gaztetxoak euren artean ondo molda daitezela. Eta aldiz, ez dugu arlo emozionala lantzen uzten. Eta txikitatik nire lurralde pertsonala ez badut landu, eta nire lurraldea nola konpartitu beste pertsonarekin ez badut landu, egingo dudak bakarra nire segurtasun-gabeziatik defendatzea izango da, eraso eginez.

Zoriontsuak izan daitezten nahi dugu, eta ez dauzkate gai hori lantzeko espazioak ere; alegia, “nola naiz zoriontsu?”. Orduan pentsatzen dugu norbait zoriontsu dela gauza asko dituelako, ez bere larruan gustura sentitzen delako. Eta gorputza ahazten ari garenez, hau-



rrari janariz betetzen diogu gorputza, telebista aurrean edo etxeko lanak egitera eserarazten dugu (nahiz legez debekatuta dauden 1977ko azaroaz geroztik), jarduera ugariz betetzen dugu, denetik leporaino jartzen dugu haurren gorputza. Beti eserita daude, taupadarik gabeko gorputz batean, paralizatutako gorputz batean, “txikito, ez hadi mugil!” erako eskoletan. Gorpuztasuna bizi egin behar da: mugitu, behatu gorputza, ez ahaztu gure radarra den hortaz.

Nahi dugu zoriontsuak eta solidarioak izan daitezen, baina lehiakortasun puru-puruan sartuta gaude, zeinek hobeto egingo. Eta to lehiaketak telebistan, nola hondoratuko panean dudana. Zera saltzen ari gara: “nik irabazi dut, zuk galdu duzulako” edo “zuk irabazten baduzu, nik galtzen dut”. Eta berez, badago lekua “irabazten dut, irabazten duzu” planteatzeko, denean: negoziotetan, familian, denean.

Lehiakortasun hori badirudi beharrezkoa dela gizarte honetan bizirauteko, edo behintzat hori da saltzen dena.

Bada, nik puntu honetan dei egin nahi diot femininotasunari. Gizonarengan eta emakumearengan dagoen

femininotasunari, ez baita emakumeon jabetza soilik. Uste dut aro berri batean gaudela, eta femininoaren unea dela. Eta ez naiz emakumeek zuzendaritza postuak betetzeaz ari (nahiz hori ere ez dagoen gaizki). Femininoaren esentziaz ari naiz: femininoa nutrizioa da, irekia. Bizitzaren zerbitzura egotea da. Hori da femininoa, nahiz une honetan femininoa izateko lehiakorra izan beharra dagoela saltzen diguten.

Berezia eta ezberdina izatea guztion ahotan dagoen balio bat da, baina badu kostu bat ere: gehiengotik irten beharra.

Hori errealitate bat da, eta eskolan landu egin behar litzateke, norbait errespetatzen ez duzunean zeu galtzen ari zarela pertsona hori, eta pertsona horrek ere galdu egiten duela zu zarena. Eta badela norbait, inolaz galdu behar ez duzuna: zeure burua.

Bestalde, kontraesan bat ere bada: hor: hain lehiakorra den gizarte honetan, lan munduan norke egingo du aurrrera? Besteek egiten ez duten zerbait egiten duenak. Gehiengotik irteten denak, eta zerbait bereizgarria eskaintzen duenak. Horregatik, hezi eta irakatsi behar dugu dena jokabide bide-urra-tzaileen bidez, ikasleek ekimena, ideia

// Denak uniformatu nahian, talentuak galtzen ditugu. Eta hemen galduta dagoen lehena irakaslea bera da. Pertsona den aldetik eta jakintza mailan. Gauzak hain markatuta egin behar dituen irakasle hori, bere egiteko bakarra programen abiadura zoroan joatea den irakasle hori, eta bere sormena, bere talentuak garatu ezin dituen irakasle hori da galduta dagoen lehena.



propioak izan ditzaten. Pertsona bat neuronak “kontrako” norabidean mugitzen zituen aldiro familiak eta eskolak zapaldu badu, bada pertsona horrek, edo erasokor bihurtu beharko du, edo autoestimua oso garatua eduki beharko du, eta esan: “arazoa eurena da, eta nik aurrera jarraitzen dut, hori delako nire helburua” (jeinuek bizitza guztian zehar egin izan dutena, alegia). Sorkuntzan beti dago urratze edo “transgresio” bat: ez duzu sortzen, urratu egiten duzu (arau bat hausten duzu, beste bat sortzeko). Eta gai hori oso interesgarria da eskolan lantzeko: astakiloarena egiten dut, edo urratu egiten dut?

Denak uniformatu nahian, talentuak galtzen ditugu. Eta hemen galduta dagoen lehena irakaslea bera da. Pertsona den aldetik eta jakintza mailan. Gauzak hain markatuta egin behar dituen irakasle hori, bere egiteko bakarra programen abiadura zoroan joatea den irakasle hori, eta bere sormena, bere talentuak garatu ezin dituen irakasle hori da galduta dagoen lehena.

Sormen lantegiak ematen dituzu. Ideia bat egin dezagun, zer da lantzen dena?

Lantegira datorren jendearen araber izaten da hori. Batzuek interes gehiago izaten dute euren sormen prozesuan, eta beste batzuei axola zaiena da, zein den sormenaren emaitza. Adibidez, enpresaburuekin, diseinugileekin aritu izan naiz, eta sormena proiektu jakin baterako nahi zuten. Kasu horietan teknika batzuk lantzen ditugu, proiektu zehatz horri erantzuteko.

Beste batzuetan garapenean zentratzen gara. Hemen beti gorputza lantzetik hasten gara (niretzat nahitaezkoa dena), eta gero dator sakontzea; ideiak nola datozen pentsatzetik, nola datozten egitetik, eta nola sentitzetik aztertuz; eta kontuan hartuta hori guztia sortzeko baliabide dela, eta dena elkarrekin lotuta dagoela. Beste gaitasun batzuk ere lantzen dira: nola aurreikusten dudana, nola ateratzen ditudan datuak barne artxibotik, nola imajinatzen, nola hautatzen dudana.



Lantegira datozenak irakasleak direnean, normalki, zer lantzen duzu?

Normalean, lehen zatia euren buroari dago zuzenduta, euren sormenean barna ibil daitezten, eta daukaten gaitasunaz jabe daitezten (batzuetan halakorik ez dutela sinetsita baitaude). Gero zati didaktikoa dator: nola aplikatu sormena. Nola egin eskola sortzaileago, eta nola eragin giro sortzaile bat nire ikastetxean edo hezkuntza komunitate osoan.

Euskal Herrian lan asko egin duzu. Lanik gehien egin duzun herria hau da, 1973az geroztik etorri baitzara hona. Sortzeko zer modu dago hemen?

Kultura bakoitzak bere sortzeko modua du. Hemen ezaugarri batekin egin dut topo: sinbolikoagoak zarete. Hitz bakoitza sinbolo bat da (ez dakit euskaraz, baina asko interesatzen zait nola sortzen diren hitzak esanahiak elkartuta). Oso interesgarria da jendeak nola sinbolizatzen duen, eta zer puntutan jartzen duen ekintza. Jakin nuen aditza esaldiaren azkenean doala, “lan egiteko modua bezalaxe da-eta” pentsatu nuen. Beti bukaeran egiten da ekintza, ebazpen bezala, eta oso azkar, baina behin pauso batzuk eman eta gero, eta ez hasieran. Niri hau asko interesatzen zait. Eta baita jendea zer emozionala den ikustea ere, nahiz espresatzerakoan erreparoa izan batzuetan. Jendea oso sentibera da, eta aldi berean ekintzaz azkarra, eta bi puntu horiek oso interesgarriak iruditzen zaizkit lantzeko. Eta hau diot, besteak beste, uste dudalako herri honetako gatazkak arlo

emozionaletik konpondu behar liratekeela.

Sormena bakerako erabil al daiteke? Nola landuko zenuke?

Niretzat gakoa jolas asko egitea da, jolasetan gorputz kontaktua baitago, elkari begietara begiratzen baitiote, eta barre asko egiten baita. Eta txikitatik. Izan ere, jolastu duzunarekin eta lotura afektibo bat sortu duzunarekin, has zaitezke ulertzen beste horrek ezberdin pentsa dezakeela.

Gatazkak arrazoiak emanez konpondu nahi izaten ditugu, hausnarketa mordo bat eginez; neokortasetik, alegia. Eta izatez, gatazkek zerikusi gehiagoko dute zati errektiliarrarekin, hor ematen baita segurtasun eza, mehatxua sentitzea, edota “ni zu baino gutxiago naiz”, “zu ni baino gutxiago zara” eta horrelako sentimenduak. Gatazkari buruz hausnar daiteke, behin ia konponduta daukazunean (gatazkaz arrazoitzeke gai bazara, hainbesteko arazoa ez den seinale).

Hemengo elkarbizitza arazoa ere, ezzait iruditzen pentsaera arazo bat denik. Beldurretatik sortzen den gatazka bat da, alde guztiek sentitzen dituzten beldurretatik: lurralde pertsonalak galduko ote diren, identitate pertsonalak edo identitateak izateko eskubideak galduko ote diren. Eta beldurrak orainean sortzen dira. Beste gatazka batzuk aurreko belaunaldietan gertatu zena emozionalki oroitzetik datoz; hori iragana da, eta hori arlo emozionalean gertatzen da. Eta etorkizuna proiektatzeko, oraina eta iragana landu behar dira.

Niretzat oraina lantzea litzateke ikastea esaten: “niri hau gertatzen ari zait”, “zuri hau gertatzen ari zaizu”, eta ez da epaitzen. Landu lurraldeen beldurrak, landu emozioetan nola jotzen dudan atzerantz, nola gurutzatzen zaizkidan kableak boterearekin, edo ikusten dudanean honek arrazoi gehiagoko izango duela nik baino...

Bullying-a. Zer egin ekiditeko?

Uste dut eraso moralik ez litzateke-



ela emango (eta hemen baina sinesten dudala gizakiarengan), lehendik pertsona horrekin jolastu baduzu, gozatu baduzu, eta ikusi baduzu bestea zaurigarria edo hauskorra dela. Gakoa da, hauskortasuna landu behar dela. Eskolan dena da arrakasta, eta burua tente joan beharra. Onar dezagun gure hauskortasuna, eta aldarrika dezagun samurtasuna. Biolentziaren gaien, sormen estrategia gisa, planteatzen ari naizena hauxe da: buelta eman behar zaio kontuari; biolentziaz hitz egiteaz aski dugu, hitz egin dezagun samurtasunaz. Gainera, askotan biolentzia samurtasun faltagatik da.

Telebista biolentzia kaxa bat da, koloretan. Ez dago botatzen dituzten filmak eta albisteak ikusi besterik.

Bai. Baina telebistak biolentzia are eta boteretsuago bat ere planteatzen du: beti eredu bakar bat irteten da, zuk inoiz izaterik ez duzuna (ezin ederragoa eta aberatsa). Eta hori eraso bat da. Izan ere, zer pasatzen da miseriatik ihesi datorren jendearekin, era berean engainatuta datorrenean telebistak “errealitate” bezala, “bizitza bezala” aurkezten dion horrekin?

TVE n aritu nintzenean, asko zaindu nuen amaren rola egiten zuten denak oso arruntak izan zitezten, eta irteten ziren haurrak mota guztietako arrokekin azal zitezten, eta betaurrekodunak ere agertu zitezten, edo pottoloak, edo down sindromea zutenak.

Gaur egun oso inplikatura zaude, batez ere Hego Amerikan, pobrezia aurre egiteko sormenezko formulak bilatzen.

Orain urte asko, neure buruari helburu bat jarri nion: sormenak balio behar du arazoak konpontzeko, pobrezia kasu. Guatemalan, “Sormena Errazten Dutenen Eskola” sortu dute, eta han ere aritzen naiz. Helburua da pobreziatik irteteko sormenezko ideia berriak bilatzea, komunitateetan bertan. Jendea prestatzen ari gara ekimena izan dezan, hezkuntzan mundu mailan ere oso gutxi landu baita hori, ekimena izatea.

Argentinan kontaktu zidaten (eta egiatan gertatu zen hau), nola neska batek galdetu zion amari: “zergatik moztu behar zaio punta ‘peceto’ari?” (haragi mota bat da ‘peceto’ a). Eta amak erantzun: “plater hau halaxe egin izan delako beti”. Amonari galdetu zion gero, eta erantzun berbera jaso zuen, “bizitza guztian halaxe egin delako”. Azkenean birramonarengana jo, eta honek, harrituta: “Punta moztu behar al zaio ba? Ez nekien halakorik! Nik beti moztu izan diot; bestela, ez zait nire kazuela onenean sartzen”.

Igo zaitez WebQuest-aren trenera!



Pilar ARISTIZABAL

EHUKO IRAKASLEA

Bizi garen Informazioaren gizarte honetan gero eta gehiago sartu dira Internet eta Teknologia Berriak gure etxeetan.

Hegazkinetako txartelak erosi, bankuetako eragiketak eta supermerkatuko erosketak egin, zergak ordaindu... gure etxetik botoi bat sakatuz egin ditzakegun gauzak dira. Urte gutxi barru ohiko gauzak izango direlakoan gaude.

Eskolak ez du gelditu behar aurre-rapen teknologiko horietatik kanpo. Irakasleok gure ikasleak datozen berrikuntza horietarako prestatzen ahalagindu behar dugu. Baina nola? Nondik hasi?

Artikulu honetan Internet eta Teknologia Berriak eskolan txertatzeko ditugun asmoei begiratu bat emango diegu lehendabizi. Eta ondoren, WebQuest-ei buruz arituko gara. Teknologia Berrietan oinarritutako tresna didaktiko bat da, erraz erabili daitekeena edozein mailatako ikasleekin. Ezagutzea merezi duela uste dugu.



Dorotea RICARTE

GASTEIZKO UMANDI IKASTOLAKO IRAKASLEA

Aurrean ditugun demak

Eskeletan Teknologia Berrien erabilera errazteko hiru baldintza bete behar harko lirakeke: ordenagailu egokiak eta Internetarako konexio azkarrak; irakasleen prestakuntza eta irakas-praktika berritzeko gogoia.

Lehenengo puntua administrazio-ari dagokio: Euskal Autonomia Erkidegoan Administrazioak "Premia Proiektua" abian jarri zuen 2000-03 hirurtekoan sare publikoko ikastetxeak azpiegitura eta baliabide informatiko hauekin hornitzeko:

- Ikastetxeetan, tokian tokiko sarea
- Hornidura informatikoa
- Internetarako eta saileko intraneterako banda zabaleko konexioa

Hurrengo pausomodura, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak 2003-2006 aldian, laguntza zerbitzuen eta ikastetxeen jarduera gidatuko duten ildoak finkatu ditu. Bestekak beste:

- Zientziak irakatsi eta ikasteko prozesuan IKTen garapena eta ezarpena sustatzea, beharrezkoa den hornidura eta aholkularitza eskainiz.

- Ikastetxeetan IKTen erabilera normalizatua erraztea, bai ikuspegi didaktikotik, bai kudeaketa arloan, edo zentroen baitako informazioa eta komunikazioa hobetzeko.

Ikusten denez, Hezkuntza Saila ahalegin handia ari da egiten azken urteotan. Hala ere, prestakuntza ikastaroak irakasle guztiengana heltzeko ahaleginak egin behar harko lirakeela uste dugu, formatu askotako jarduerak antolatuz, orduz berrituz, orduz kanpo, zenbait liberazio mota eskainiz (ordukakoak, egun osokoak...) ahalik eta irakasle gehienek parte har dezaten.

Bigarren puntuan, prestakuntzan, Berritzeguneeke parte-hartze handia dute: gure ustez, oraingo prozesu honetan garrantzitsuena ez da azpiegitura dotazioa eta baliabide teknologikoak (ordenagailua, multimedia...) geletan sartzea, baizik eta berritzapen programak sortzea eta Teknologia Berriak eguneroko praktikan txertatzea beste edozein tresna bezala, errutina bihurtu arte. Horretarako, Berritzeguneetako IKTetako aholkularitzaren lanak ga-

WebQuest-a tresna didaktiko interesgarria da. Internet bidezko aurkuntza gidatuko jarduerak dira, ikaslea bera kontuan hartzen dutenak.

bera eta jarduera motaren arabera, baloratuko denaren deskripzio bat egingo da: nola baloratuko den bakarkako lana, taldeko lana, partaidetza, aurkezpena...

Ondorioa: esperientzia laburtuko da: zer ikasi dugun, zer dakigun orain lehen ez genekiena; eztabaida bat sor daiteke gelan... "Edergarri" bat jarriko zaio egindako lanari.

rrantzi handia hartu du orain arte antolatutako diren ikastaroak eta sortzen ari diren materialak zabaltzeko orduan. Horien artean, Araban, esaterako:

- Elkarren arteko proiektuak
- Hezkuntza web orriak
- Prentsa tailer digitala
- Premia mintegia
- IKT gelan

Hirugarren puntua, hau da, irakaspraktika berritzeko gogoia, irakasleoi dagokigu: IKTak gelan sartzea ez da lan erraza. Eskola gizartean sortzen diren eskaeren atzetik doa, eta sortzen diren arazo eta behar guztiei erantzutea eskatzen zaio.

Askotan, irakasleonek aldetik, berrikuntzarako oztupoak egoten dira, hala nola, kontrola galtzeko beldurra, teknologia berriak erabiltzeko trebetasun falta edo irakaslearen rola errealtate berrira egokitze zailtasuna. Horrez gain, abiadura handian aldatuz doan mundu bat denez, gelan sartzeak dituen aukerak eta ondorioez hausnarke eta egiteko denborarik ez digu ematen.

Hala eta guztiz ere, informatika eta ordenagailuak erabiltzen dituztenek abantailak ere ikusten dizkiote, eta gus-tura daude. Ondoriorik nabarmenena motibazioa da. Ikasleak gogo handiz egoten dira, jarduera bizia, aktiboa eta entretenigarria da, desberdina, eta hori lortzea ez da gutxi.

Beraz, beldur horiei aurre egin behar genieke eta teknologiak gure praktikan integrazten saiatu behar genuke. Ildo horretatik doa gaurko gure proposamena: WebQuest-aren erabilera curriculumeko gaiak lantzeko.

WebQuest-aren erabilera didaktikoa: eredu baten azterketa

Sarean tresna didaktiko interesgarri honi buruzko informazioa ugari egon arren, irakasleen artean oso tresna ezezaguna delakoan gaude.

Web Quest kontzeptua Bernie

Dodget-ek proposatu zuen 1995ean. Honela defini daiteke:

WebQuest-ak Internet bidezko aurkuntza gidatuko jarduerak dira, ikaslea bera kontuan hartzen dutenak. Lan kooperatiboa bultzatzen dute, eta pertsona bakoitzak lanaren zati baten ardura du. Gaitasun kognitiboak erabiltzera behartzen gaitu, gaitasun kritikoa landuz eta ikerkuntza sustatuz.

Gainera, oso formatu egitaratua duenez, erabilera errazten du eta sortzeko ere alde aurretik prestatuta dauden txantiloak erabiltzeko aukera ematen du. Honako atal hauek ditu:

EGITURA¹:

Sarrera	Eginbeharra (zeregina)	Garabidea	Gida Didaktikoa
Baliabideak	Ebaluazioa	Ondorioa	Kredituak

Sarrera: bi helburu dira nagusi atal honetan:

a) Ikaslea topatuko duenaz orientatzea.

b) Motibatzea eta jarduera atsegina, dibertigarria, erakargarria egitea.

Eginbeharra: atal honetan, lana bukatu ondoren zer egin behar duen esaten zaio ikasleari edo ikasle taldeari; web gune bat, Power Point aurkezpen bat, word dokumentu bat, besteen aurrean emateko ahozko hitzaldia, kontaketa...

Garabidea: lana bukatzeko ikasleak egin behar dituen pausoak azalduko dira: ariketak, antolamendua, lanak. Azalpenak argia eta zehatza izan behar du, gehiegi luzatu gabe.

Baliabideak: irakasleak berak aztertutako eta aukeratutako tokiak emango ditu, ikasleak nabigazio zuzena egiteko eta ez galtzeko. Baliabideek ez dute zertan egon sarera mugatuta.

Ebaluazioa: ikaslearen adinaren ara-

Gida didaktikoa: irakaslearentzat idatzita dago. Bertan agertzen da aurrea egin ahal izateko beharrezkoa den informazio guztia.

Kredituak: egilearen datuak eta izan dituen laguntzaileenak (izan badi-tu) sartzen dira. Lantalde batean sortua izan bada, lantaldearen izena. Informazio garrantzitsuena nondik atera den ere aipatzen da (CD-ROM batetik, Interneteko helbide batetik...).


Gure ustez, WebQuest-ak a proposak dira irakaskuntzako maila guztieta-ko curriculumean txertatzeko, nahiz eta haur txikiekin oztupo gehiago izan etapak berak dituen ezaugarriengatik. Hala ere, merezi duela uste dugunez, hemendik aurrera WebQuest-ak Haur Hezkuntzan izan dezakeen balioa erakusten saiatuko gara.

WebQuest bat zer den hobeto ikusteko, hurrengo puntuan Haur Hezkuntzarako adibide praktikoa bat aztertuko dugu atalez atal, berezitasunak nabarmentuz.

¹ <http://www.berrikuntza.net/users/b01ikt/webquest/zerden.htm>

Etxe-abereak gure lagunak WebQuest-a

INDEX: lehenengo pantaila honetan aurkezpena eta menu nagusia agertzen zaizkigu. Web Quest-aren zenbait atal-atala joateko aukera ematen digu.



SARRERA: landuko den gaia aurkezten zaie, beren burua kokatzen laguntzeko eta gaiari buruz dituzten ezagupenak aktibatuz. Pantaila honetan bukaerako lana zein izango den proposatzen zaie.



LANA: atal honetan irakasleak azaltzen die lana noiz, nola eta non eramango den aurrera. Ikusten denez, proposatzen zaien lana gelako dinamikaekin eta une horretan lantzen ari diren unitate didaktikoarekin zeharo lotua agertzen da.



GARAPENA: ikusten denez, lanak jarraituko duen prozesua ariketaz ariketa zehazten da. Kasu honetan, ikasleak izango dira protagonistak, beraiei baitagokie zenbait ariketatan eskatzen zaiena burutzea, betiere irakaslearen laguntzaz.

WebQuest honetan zazpi ariketa egin beharko dituzte. Guk, espazio kontuak direla eta, horietatik bi baino ez ditugu ekarriko hona, baina puntu honen bukaeran agertzen den WebQuest honen helbidera jo eta arakatzeko jarrai dezazuen animatzen zaituztegu.

Atal honetan, WebQuest-arekin lotuta, Internet eta beste programa batzuk (Power Point) erabiltzen hasten da. Kasu honetan, ez zuzenki informazioa bilatzen, baizik eta proposatutako helburuak lortzeko beste lan mota batzuk eginez; hala nola, jokoak eta eskulana.



Interneten informazioa bilatzeko adin honetako ikasleek izan dezaketen zailtasuna dela-eta, WebQuest honen egileak arazo hori gainditzeko ondorengo pantailan ikus ditzakegun "dokumentalak" sartu ditu, etxe-abereei buruzko ikus-entzuzko informazioa eskaintzeko. Haurren lana interesatzen zaien animalien pantaila aukeratzea eta entzuten duten informazioaz jabetzea izango da, aurrerago beren liburuxka osatu ahal izateko.



EBALUAZIOA: irudian ikusten denez, ebaluazioa kasu honetan irakasleak egiten du, behaketa zuzenaren bitartez, nahiz eta arestian aipatu bezala, adinaren arabera zenbait jarduera mota egin daitezkeen.



ONDORIOAK: azken jarduera komuna da, eta bertan, elkarrikeria baten bidez haur bakoitzak bat-batean aipatu du lanaren prozesua nolako izan den eta zer ikasi duen, gustura ibili den edo ez... Beheko irudian ikusten ez den arren, lana irakaslearen proposamen batekin bukatzen da: egindako liburuxka inprimatzea gelako liburategian nahi dutenean begiratu eta "irakurri" ahal izateko.



GIDA DIDAKTIKOA: edozein WebQuest lantzen hasi baino lehen, uste dugu komenigarria litzatekeela gida arretaz irakurtzea, era horretan, zenbait informazio orokor jaso ahal izango baita: irakaslearentzako orientabideak, WebQuest-aren helburu didaktikoak, laguntzako irakaslearen beharra, informatika gela erabiltzeko arauak, norizkonduta dagoen, denboralizazioa, ikasleen eta espazioaren antolaketa, eta behean agertzen den bezala egin behar dituzten ariketak eta haien berezitasunak.



BALIABIDEAK: irakasleak erabili dituen web helbideak eta lana gauzatzeko beharrezkoak diren informatikako tresnak agertzen dira.



Adibide honekin WebQuest bat zer den eta nola egin daitekeen argiago ikusiko dela espero dugu.

Gure ustez, WebQuest bat egiteko garrantzitsua ez da informatikaz asko jakitea, baizik eta buruan edukitzea zer helburu lortu nahi dugun haurrekin. Horrez gain, era argi eta erakargarrian azaldu behar zaie haurrei nola gauzatu duten prestatutako lana.

WebQuest-ak aurkikuntza bidezko estrategia erabiltzen du. Ikasleek Interneten nabigatzeko gaitasuna gara dezaten sortua da, zenbait iturritatik datuak jasoz eta aukeratu pentsamendu kritikoa garatzea du helburu.

Ikaskuntza konstruktibistan oinarrituta, proiektuen bidezko irakaskuntza bultzatzen duela iruditzen zaigu. Lan egiteko talde txikitik antolatu behar dute, eta ikerlan horren bukaerako emaitza, alde aurretik zehaztutako eginkizuna, ahoz zein idatziz, paperean zein formatu digitalean izan behar du.

Aztertu dugun WebQuest hau honako helbide honetan aurki dezakezue:

http://www.proarabatic.org/webquest/seminario/seminario04_05/Gure%20lagunak/index.htm

Web helbideak

Gai honetan gehiago sakontzeko hona hemen helbide interesgarri batzuk:

- WebQuest bat WebQuest-ari buruzkoa:

<http://www.juntadeandalucia.es/averroes/iespuertadeandalucia/IntroduccionWQ/Un%20WebQuest%20sobre%20WebQuests.htm>

- Arabako Berritzeguneko atari bat, oso interesgarria:

http://www.proarabatic.org/webquest/WebQuest_eusk/indexeus.htm
- Francisco Muñoz de la Peña Extremadurako irakasleak prestatutako web orria. Bertan, "1, 2, 3 tu WebQuest" atalean WebQuest-ak "on-line" sortzeko laguntza aurki dezakezu.

<http://www.aula21.net/>
- EAEko Berritzeguneeen tokia:

<http://www.berrikuntza.net/users/b01ikt/webquest/>

- Kolonbiar gunea, WebQuest-ei buruzko atal zabala du.

<http://www.eduteka.org/webquest.php3>

- Euskaraz WQei buruzko informazioa eta hainbat eredu dituen

<http://www.elkarrekin.net/Proposamenak/Index.htm>

- La Laguna Unibertsitateko Manuel Area Moreira irakaslearen web orria. Bertan WebQuest bat sortzeko prozesua azaltzen da.

<http://webpages.ull.es/users/manarea/webquest/creacion.htm>

- Kataluniako WebQuest ataria:

<http://www.webquestcat.org/>

- WebQuest-ari buruzko monografikoa sarean:

http://www.quadernsdigitals.net/index.php?accionMenu=hemeroteca.VisualizaNumeroRevistaIU.visualiza&numeroRevista_id=527

Ondorio gisa

Lehen aipatu dugun moduan, gaur egun irakaslearen prestakuntzarako hainbat ikastaro eta mintegi interesgarri antolatzen dira, bai Garatu Planaren bidez eta baita Berritzeguneetan ere. Gure esperientziak esaten digu egin behar den ahalegina ez dela handia eta apustua egitea merezi duela.

Gure ustez, berrikuntzarako tresna baliagarria izateaz gain, gure hizkuntza errealitatean aurrerapauso handiak egiteko lagungarri izan daiteke. Denok dakigu euskaraz materialak ekoizteko zailtasunak izan badirela, merkatua txikia baita. Irakasle bakoitzak euskaraz WebQuest bana sortuko balu, laster gure hizkuntza eta beharretara egokitutako bilduma ederra izango genuke. •

Denok kooperatiboak izaten ikas dezagun

Jolas Kooperatiboen Etxea

Donostian dago Jolas Kooperatiboen Etxea. InteRed Euskal Herria gobernuz kanpoko erakundeak kudeatzen du, eta helburua hau da: jolasaren bidez helduak eta haurrak lankidetzan hezte.

Etxe honetan prestakuntza lantegiak, material didaktikoa, mahai jolasen mailegu zerbitzua, hitzaldiak eta beste hamaika ekintza antolatzen dira, heldu, nerabe zein haurrei zuzenduta. Dena den, lehenetasuna helduen hezkuntzak duela nabarmendu digute, efektu biderkatzailea duenez. Helduek jolasa berreskuratzeko etxea da, beraz.

Olatz Aldabaldetrekuk, InteRed Euskal Herria fundazioko pedagogoak ireki dizkigu “denon etxeko” ateak.

Noiz da jolasa “kooperatiboa”?

Adibide batekin azaldu digu Olatz Aldabaldetrekuk pedagogoak. Erroia eta baratza mahai jolasa hartu du: taulan lau fruta arbola daude, eta erdian belea edo erroia. Helburua da lau zuhaitzetako fruta guztiak biltzea, denen artean pastel bat egin nahi dugulako (“jolas kooperatiboei hasiera emateko istorio bat dago beti, partaideak gehiago barneratzeko balio duena”). Eta fruta guztiak jaso behar ditugu, dardoa botaz, belea agertu baino lehen (“beti gatazkaren iturria edo erronka kanpoko elementu bat da: erroia, ‘txapapotea’, elur jausia... baina ez partaideetako norbait”). Denen artean jaso behar ditugu frutak, baina partaide bakoitzak bere saskia du, leku mugatuarekin. Beraz, dardoa bota eta zurean lekurik ez duen fruta bat tokatuz gero, bi aukera dituzu: ez hartzea, edota fruta hori behar duen partaideri ematea. “Haurren joera da zuhaitzean uztea, inori eman beharrean. Gero ulertzen dute, beleari irabazteko aukera gehiago dutela kideari lagunduta”. Izan ere, jolas kooperatiboa ez da bukatzen batek helburua lortzen duenean, baizik eta denek lortzen dutenean. Eta lehengo amaitzen duena ez da jolasetik irteten, jolasean sartuta jarraitzen du, eta bere txanda kideari laguntzeko baliatzen du.

Lehenetasuna: helduak giza balioetan hezte

Kanpainak eta elkartasun programak haurrei begira antolatzen dira ia



beti, haurrak direlako “biharko helduak”. Gaurko mundua, ordea, helduen eskuetan dago. Horrexegatik, giza balioetan hezten hasi behar dutenak helduak direla argi dute Jolas Kooperatiboen etxean: helduak eta gizartea dira haurrei lehiakortasuna transmititzen dietenak eta, beraz, helduengan gertatzen diren aldaketek efektu biderkatzailea dute.

Helduentzako lantegiak 8-12 ordukoak dira, eta erabat praktikokoak. Helburua helduek jolastea da (gutxitan egiten dute, eta oso positiboa da harremanetarako, komunikaziorako, autoezagutzarako, kultura artekotasunerako, sormenerako, integraziorako, plazera lortzeko...). Esperimentatuz ikasten dute beste modu batean jolasten: elkarlanean. Jolas hauetan taldean jolasten da: ez du inork irabazten, taldeak irabazten edo galtzen du. Helburua garbia da: lehiakortasunik gabe jolastu eta ondo pasatzea. Jolasa plazera delako.

Dendetan ez dituzu aurkituko

Mahai jolas kooperatiboak, gehienak, Alemanian fabrikatzen dira. Hemen go dendetan ez da komertzializatzen jolas mota hori. Jolas hauek giza balioetan hezten dute, desberdinak dira eta kalitate handiko jolasak dira (egurrezkoak dira asko).

Jolas Kooperatiboen etxean daude salgai. Jatorrizko herrietatik ekartzen dituzte (Alemaniatik gehienbat), itzuli,



eta salgai eskaini. Izan ere, askok eskatzen zizkieten, eta jende horrek non lortu ez zeukan bestela.

Euskal Herrian bertan mahai jolas kooperatiboak sortzea izan da InteRed Euskal Herria GKEren beste helburu bat. Orain artean 4 mahai jolas atera dituzte (ikus ondoko taulan). Eusko Jaurlaritzaren laguntza dute, eta ikastetxe zein elkartei doan eman dizkiete (dagoeneko agortuta dago administrazioaren laguntzaz ateratako edizioa). Jolas kooperatiboko dendan, hala ere, lau jolas hauek salgai daude.

Jolasen mailegu zerbitzua

Mahai jolas kooperatiboak maileguz eraman daitezke etxera, liburutegiko sistemaren antzera:



kuota bat ordaindu (20 euro urtean), eta 10 egunean behin jolas bat har dezakete. Ikastetxeek eta elkarteek 45 euroko kuota dute, eta 3 jolas eraman ditzakete epe horretan. Zerbitzuak harrera ona omen du: "Gurasoen eta hauren arteko harreman gehiago lantzeko aukera ematen du. Arratsaldean edo gauean tartetxo bat hartzen dute jolasaren bidez elkarrekin egoteko. Eta haurrek ikasten dute ez dutela zertan dena eduki, zertan dena erosi. Lankidetzaren zentzua du: nik disfrutatzen dut jolasarekin, baina ez da nirea, eta zaindu egin behar dut beste haurrek ere goza dezaten". •

Prestakuntza

Guraso eta hezitzaileen-
tzat

• **8-12 orduko prestakuntza lantegiak, erabat praktikoak.**

• **Hitzaldiak.**

• **Informazioa: jolas fisikoei eta mahai jolasei buruzkoa, bibliografiak, web orriak, nazioarteko materialak, lan talde espezializatuak eta abar.**

Haurrentzako tailerrak

• **6-10 urte bitartekoentzat. Mahai jolasak eta jolas fisikoak lantzen dira.**

Ikastetxeen bisitak

• **Lehen Hezkuntzari zuzenduta.**

Material didaktikoa

- Material hau InteRed Euskal Herria eta FISC GKEk atera dute, Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz.
- Eskuratu nahi duenak, InteRedera deitu (943 293 847)

Unitate didaktikoak

"Atzoko eta gaurko lankidetzak jolasak"

Euskal Herriko jolas tradizionalak hartu, eta buelta txiki bat emanez kooperatibo bihurtu ditu lan honek. Edizioa agortuta dago.

"Lankidetzak jolasak"

Balioetan hezteko, eskolan jolas kooperatiboa erabiltzea proposatzen du unitate didaktiko honek. LHko 6-12 urteko haurrentzat da.

"Elkartasuna eta Lankidetzak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan"

Gatazken kudeaketarako tutoretza plan bat da: ordubeteko 15 saio planteatzen ditu, jolasetan, ipuinetan eta musikan oinarrituta. Oraindik ez dago eskuragarri, esperimentazio fasean baitago, 7 ikastetxetan.

Mahai jolasak

- "Itsasoa jokoan" (10 urtetik aurrera).
- "Elur jausiak" (8 urtetik aurrera).
- "T Chang" (10 urtetik aurrera)
- "Bedi-Bedi" (8 urtetik aurrera).

Ikasmahai digitala, Barakaldoko ikasleen asmakuntza

Elhuyarren “Teknoskopia” saria irabazi du

Asmatzaile gazteentzako lehia-keta da Elhuyarren “Teknoskopia”, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleei zuzendua. Talde txikietan lantzeko, aurtengo gaia honako hau izan da: Ingurune Adimena. Ikertzaileak zirela pentsatu behar zuten eta, denbora askoan ikertu ostean, gizartearentzat aurrerapauso handia den aurkikuntza bat egin zutela. Aurkikuntza horren berri, aurkezpen baten bidez eman behar zuten biltzar baten aurrean.

Saria Barakaldoko El Regato ikastetxeko laukote batek jaso du. Batxilergoko 1. mailan daude, eta Teknologia eta Ingurumena ikasgaietan landu dute asmakuntza: “ikasmahai digitala”, ikasleei motxila astunen zama arinduko dien pantaila elektronikoa.



Zer asmatuko pentsatzen jarrita, laukote honek galdera bat egin zion bere buruari: “zer egin genezake, gure ikastetxeko bizimodua errazteko?”. Eta ikasle zein irakasleen eguneroko arazoetan erreparatu zuten hala: egunero zortzi libururekin atzera-aurrera ibili beharra, lanak etxean ahaztu dituzula, koadernoak eskolan utzi zenuela atzo, gurasoentzako oharra “bidean galdu” zaizula... Gelako ikasmahaia eta etxea lotu behar ziren, beraz. Bilboko metroan ukipen pantailak ikusi, eta argi ikusi zuten: ikasmahai digitala sortuko zuten.

Ikasmahai digitala konektatuta dago etxeko ordenagailura, ikastetxeko zerbitzarira nahiz akademiako ordenagailura. Gelako arbela ere digitala izan-

go litzateke, eta bertan idazten den guztia zuzenean ikasleen ikasmahaietan agertuko litzateke. Beraz, gelan egiten duzun dena gero etxetik zein akademiatik zabalenez, baita edozein liburu edo testu ere (material guztia formatu digitalean egongo litzateke, noski). Garikoitz Alvarez irakasleak dioenez, “asmoa poltsikoan soilik boligrafo optikoa eraman behar izatea da. Eta motxila ogitartekoa eramateko izan dadila!”. Irakasleek eta gurasoek ere komunikazio zuzenagoa izatea erraztuko luke.

Idea aplikagarria

Epaimahaiak saria emateko honako ezaugarriok nabarmendu ditu: ideiarekin aplikagarritasuna (aplikazio

Ikasmahai digitala konektatuta dago etxeko ordenagailura, ikastetxeko zerbitzarira nahiz akademiako ordenagailura. Gelako arbela ere digitala izango litzateke; bertan idazten den guztia zuzenean ikasleen mahaian agertuko litzateke.

funtzionala eta interesgarria du), punta-puntako hainbat teknologia modu konbinatuan eta egoki erabili izana, eta aurkezpenean arazoibide logikoa eta sinesgarria izatea.

Laukotearen esanetan, zailena ideia guztiak bildu eta proiektu bakar batean gorpuztea izan da. Horretarako, gaurko teknologia anitzetara jo behar izan dute. Behin lan hori eginda, aurkezpena prestatzea lan erraza izan omen da eurentzat.

Ideiaaren aplikagarritasuna azpimarratu du epaimahaiak. Ez da zientzia fikzioa. Izatez, eguneroko arazo errealetan oinarritu dira ikasleak, eta egungo puntako teknologia egoki konbinatuz erantzuna eman diete arazoei. Pentsatzekoa da, beraz, urte gutxiren buruan halako idazmahaiak merkatuan izango direla. Pena bakarra dute: ideia ez patentatu izana.

Teknologia ikasgairako akuilu

Era honetako asmakuntza lehiaketak aukera ezin hobeak dira, ikasgai batego lana proiektu sortzaile batean oinarritzeko. Hala azaldu digu Garikoitz Alvarez irakasleak: "Halako sariketarako oso onak dira ikasleek pentsa dezaten eta bihar bertan erabiliko dugun teknologian oinarrituta lan egin dezaten. Prestatu egiten dituzu 5 urte barru aurkituko duten teknologia hori hobeto ulertzeko, eta parametro horietan pen-

tsatzen jartzen dituzu, talde lanean gainera".

Aurten 7 lan aurkeztu dira "Teknoskopia" sariketara, eta epaimahaiak lanak izan omen ditu onena aukeratzen,

denek betetzen zituztelako oinarritzko irizpideak. Datorren ikasturterako ere, horra sariketa polit bat ikasgelako lana sormenezko proiektuan oinarritu nahi duenarentzat. •

Ikasmahai digitala

- Ikasmahaia: ukipen pantaila bat, eta boligrafo optikoa. Pantaila elektronikoa horren ertz batean ordutegia; bestean arbela, irakasleak idazten duena denengana heltzeko. Pantaila erdian liburu-orria, zauden ikasgaiko ordutegiarekin konektatuta, eta alboan koaderno-orri bat, zure apunteak hartzeko boligrafo optikoarekin.
- Etxeko, ikastetxeko zein akademiako ordenagailuei konektatuta. Ikasmahaian jasotako lanak, oharrak, informazio guztia etxeko ordenagailutik ireki zenezake, edo akademiatik. Irakasleak eta ikastetxeak ere zuzenean bidali ahal izango dizkie oharrak eta azterketen emaitzak gurasoei. Hala, ikasleek ez dute motxilarekin atzera-aurrera ibili beharrik, eta gurasoen zuzeneko oharrak ere ez dira "bidean galduko".
- Puntako teknologia. Egungo teknologia berriak biltzen dira ikasmahaian (WIFI sistema, internet, intranet, polimeroak, ukipen pantaila...). Energia berriztagarrietan eta kontsumo baxuko elektroniketan oinarritu dute dena.
- Asmakuntzaren sortzaileak: Paula Arana, Asier De Diego, Jone Miren Miguel eta Amaia Santamaria. Laguntzaile izan duten Teknologia eta Ingurumeneko irakaslea: Garikoitz Alvarez.



Zergatik diozu telebista gezurrak egiten dituen makina dela? Nola izan gaitezke kritiko telebista aurrean



Telebista pizten dugunean programak eta publizitatea sartzen zaizkigu, eta baita telebistak eskaintzen digun balio eskala ere. Pentsak notiziak ematen dizkigu, albisteak transmititzen dizkigu. Irratia iritzia ematen saiatzen da tertuliekin (noski, prentsak iritziak ere ematen ditu editorialetan eta irradian ere solasaldien aurretik prentsako berriak irakurtzen dira). Telebista, berriz, identifikazio ereduak ematen saiatzen da, horiek bidaltzen dizkigu, eta hori da gezur handietako bat. Eginda dauden irudiak bidaltzen dituen telebista da, eta barruan ikusten dugunarekin begirada betetzen digute. Horrek guztiak telebista ideologiko bat sortzen du. Egungo sistema erreproduzitzen eta legitimatzen duen telebista da.

Gainera, telebistak “ni errealtatea naiz” esaten digu. Eta oraindik ez digu esan ebanjelioak bezala “ni naiz egia eta bizitza” telebista egiten duten horietako inori ez zailako bururatu! Bestela, egingo lukete.

Zergatik da errealtatea? Gauza bakar bategatik: merketzeko, denbora errealean grabatzen delako.



Lolo RICO

GIDOILARIA ETA ERREALIZADOREA

Baina telebista ez da errealia. Zuzen-dari, errealizatzaile eta batez ere talde politiko eta ekonomiko baten errealtatea da. Haien ikuspegia agertzen da eta hor manipulazio bat dago. Esate baterako, ekitaldi batean jendea joan dela erakutsi nahi badute, betetako aulkiak agertuko dituzte; eta jende gutxi joan dela adierazi nahi badute, aurrealdean dauden aulki hutsak. Hor manipulazio bat dago, eta beharrezkoa da zati bat bestearen atzean muntatu behar dela-

ko. Eta gidoi bat duen istorio bat kontatzen ari zaizkigunez, horretaz balia daiteske nahi dutena adierazteko. Ez da erraza objektiboa izatea.

Telebista eta haren balioak sostengatzen dituzten egitura politiko-ekonomiko horiek ikuslea menderatzea baino ez dute nahi. Ez da interesatzen ikusleak pentsatzea, gizaki pentsalaria zaila baita gidatzen. Pentsatzen ez duena, berriz, dominatu egiten da, menperatu.

Nik uste dut telebista egiten duten gizon-emakumeek ez daukatela bokaziorik. Botere eta diru bokazioa baino ez dute, baina ez balio transmisiorako bokaziorik. Eta nire ustez, transmititu beharreko balio horietako bat telebistan hezitzea litzateke.

Izan ere, telebistak etengabe hezitzen du, balio hezitzaileak ditu. Programa batek, onerako edo txarrerako, hezi egiten du, bere balioekin, bere gezurrekin... Horien artean programa hezitzaile-didaktiko bat eskaini beharko luke telebista publikoak: zientzia erakusteko, teoriarik hain gaizki azaltzen diren prozesu hezitzaileak argitzeko, beste

Garrantzitsuena ez da telebista piztea, baizik eta jakitea zergatik pizten den, eta zergatik ari garen agian gustatzen ez zaigun programa bat irensten.

herrialdetako jendea nola bizi den erakusteko... Egon dadila astean ordu eta minutu batzuetan irudiaren indarra baliabide gutxiarekin edo egoera txarrean dauden eskolen eskura edo laguntza ehar duten etxeen eskura.

Hautatu eta pentsatu, dena bere horretan irentsi gabe

Irudiak ikusteko hezi egin behar da, eta hor daukagu erronka. Irudiaren birtartez pentsamendura joaten edo iristen hasi beharko litzateke. Liburu batean irakurri nuen istorio batekin azalduko dizuet ideia hori. Enperadore txinatar batek jauregian horma-irudi handiak egitea agindu zuen. Haietako bat, handiena, urjauzi batena zen. Egun batzuk geroago margolarien nagusiari deitu eta ezabatzeko esan zion. "Baina ez al zaizu gustatzen?" galdetu zion margolariak. "Bai, bai, baina ur soinuak ez dit lorik egiten uzten". Nire ustez, horrek oso argi adierazten du zer diren irudiak, gure irudimena. Bizitza begiratz hasten dugu, eta irudiaren ondoren pentsamendua sortzen da. Horixe egin behar dugu guk, pentsamendua bultzatu, eta Hik Hasin horretan hasi zarete *Begiradaren heziketa. Zinema aztertzen* proposamenarekin.

Batez besteko ikusle batek 4 ordu pasatzen ditu egunean telebista aurre-

an. 50 urterekin, zenbat ordu izango ditu galduak telebistaren aurrean? 8 urte inguru. 50 urterekin 8 urte oparituko balizkigute ez genituzke Isabel Gemiorekin edo Vaya Semanitarekin galduko. Beste modu batera pasako genituzke, modu aktiboagoan, ez hain monotonoan.

Dena dela, telebistaren aurrean 4 ordu egoten garela esan dut, baina 16 balira ere, ez legoke gaizki ondo aukeraturako bagenu. Beno, agian 16 esajertua da... baina ez da denbora kontua soilik, edukien kontua da. Oso garrantzitsua da ondo hautatzea. Etxeriristen garenean, ezkerrekoak edo eskuinekoak izan, ospitaletik edo ezkontza batetik etorri, iritsi eta telebista pizten dugu keinu irrazional modura, ia konturatu ere egin gabe. Keinu hori ez da ezer, horregatik diot irrazionala dela, ez du helbururik. Keinu hori beti ez dago programa zehatz bat ikusteko desioak probokatuta, baizik eta bakarrik gaudelako, beldurra dugulako eta ahots bat entzun nahi dugulako, aspertuta gaudelako, triste gaudelako, langabezian gaudelako... arrazoi asko egon daitezke. Garrantzitsuena ez da piztea, baizik eta jakitea zergatik pizten den, bestela ez baitugu irudia dekodifikatuko.

Nik ez dakit telebistan agertzen den guztia dekodifikatzen den edo ez. Nik uste dut ezetz eta hori oztopo handia da. Haur japoniar batzuk ninja dordokekin zorabiatu egiten dira. Dekodifikatu ezin ditugun irudi asko sartzen zaizkigu eta saturatu egiten gara. Agian horrek eragingo die zorabioa. Ametsekin ere gauza bera gertatzen zaigu. Sarritan telebistaren aurrean lokartzen gara eta irudi horiek eragina dute gure ametsetan.

Haurrak obsesionatuta daude telebistaren aurrean, eta larriena ez da ikusten dutena, irudikatzen dutena baizik, hau da, nolako soinua entzuten diote urjauziari.

Nik badut lagun bat telebista armairuaren gainean jartzen duena eta kableak gordetzen dituena, telebista ohiko leku pribilegiatutik kenduz. Telebista



ikuslea debekatu

beharrean, telebista hartzea zaila egin nahi izaten du. Ez zait oso egokia iruditzen armairuaren gainean jartzea arriskutsua izan daitekeelako, baina mahai azpia, adibidez, leku egokia iruditzen zait. Hau da, ongi deritzot ikuslearen eta telebistaren artean traba txiki bat edukitzeari.

Haurrei erakutsiko balitzaie telebista espazio fisiko bat okupatzen duen altzari bat dela, eta horrez gain, gure buruan ere leku bat okupatzen duela? Eta ez dela hartu behar belaki batera erortzen den eta han gelditzen den ura bezala? Telebistak bidaltzen diguna maneiatu, hausnartu, aztertu egin behar da. Ez gara modu sasijakintsuan eseri eta programak aztertzen hasi behar, baizik eta jakin zertaz ari diren, batzuk kendu, beste batzuk jarri... Jakin zergatik piztu dugun telebista eta zergatik ari garen agian gustatzen ez zaigun programa bat irensten.

Ongi deritzot ikuslearen eta telebistaren artean traba txiki bat edukitzeari. Esate baterako, egongelako leku pribilegiatuan jarri beharrean, mahai azpian jartzeari.

Zinemara joaten
garenean, badakigu
fikzioa ikusten ari
garela. Telebistan,

ordea, ikus-
ten duguna
errealitatea
dela pentsa-

tzen dugu.

Horregatik da

garrantzitsua

horretaz jabetzea.

Kritikotasuna zineman eta telebistan

Behin Gaztela-Mantxako herri ba-
tean hitzaldi bat eman nuenean, 12-13
urteko neska batek halaxe galdetu
zidan: zergatik bihurtzen gara kritikoa-
go zenbat eta zinema gehiago ikusi; eta
zergatik dugu kritikotasun gutxiago
zenbat eta telebista gehiago ikusi? Gal-
dera azkarra iruditu zitzaidan. Hitzik
gabe gelditu nintzen, zer erantzun ez
nekiela. Ohiko argudioekin erantzun
nuen, baina badakit telebistaren eta
zinemaren artean badirela desberdin-
tasun jakin batzuk.

Hasteko, semiotikan *pantaila ilu-
na* deritzona existitzen da zineman, eta
profesionalok *eremutik kanpoko*a dei-
tzen diogu. Hau da, pantailaren ingu-
ruan benetako beste pantaila ilun bat
dago. Horrela, itsasontzi bat ikusten
dugunean, inguruan ozeanoaren han-
didasuna irudika dezakegu. Baina itsa-
sontzi edo irudi hori bera telebistan
ikusten dugunean, bainuontzi batean
itsasontzitzo bat ikustea bezala da; gai-
nean ezkontzako argazki bat dago, edo

landare bat pantaila aurrean... etxean
ezinezkoa da efektu hori lortzea.

Horri loturik, zinemak posible egi-
ten du norberak bere irudiak birsor-
tzea. Esate baterako, *Arsénico por com-
pasión* filman Gary Grant aktorea es-
kailera batzuetan dagoen eszena bat
agertzen da eta borrokan ari da. Gaizto-
ak polizia batzuekin ari dira borrokan,
baina borroka ez da ikusten. Noizean
behin itzalen bat edo beste pasatzen da
argizatutako horman eta kolpeak ikus-
ten dira. Guk eszena horiek ikusi edo
irudikatu egiten ditugu. Telebistan ia
ezinezkoa da hori, beste batek eginda-
ko irudiak soilik ikusten ditugu, norma-
lean itsusiak, gaizki egiten direlako.
Horregatik, oso garrantzitsua da hau-
rrek irudiak irakurtzen ikastea.

Gainera, zinemara joaten garene-
an, badakigu fikzioa ikusten ari garela,
baina halere sinestu egiten dugu ongi
egindako produktu bat delako. Ez ba-
dugu sinesten, pelikula txarra delako
izaten da. Telebistan, ordea, ikusten
duguna errealitatea dela pentsatzen
dugu. Horregatik da garrantzitsua ho-
rretaz jabetzea.

Beste desberdintasun bat bada:
hautatzea. Zineman nahi dugun filma
hautatu ohi dugu, eta telebistan ez. Gai-
nera, zinematik ateratzen garenean,
aukeratuta joaten garenez, normalean
komentatu egin da: gehiago espero
nuen, aktorearen lana ikustera nento-
rren eta asko gustatu zait, pelikula di-
bertigarria izango zela uste nuen eta
drama bat da... Filma komentatu egiten
da eta hori da norberak egin behar due-
na telebistako programa bat amaitzen
denean.

Pentsatzen erakutsi behar dugu, hor dago gako

Gaur egun telebistan ez dago asko-
tarik aukerarik, telebista kate guztie-
tan gauza bera dago. Telebistan diruaz
baino ez da pentsatzen egun. Memento
honetan telebista publikoa oso garran-
tzitsua da. Une honetan negozioa gai-
lentzen da, eta ez du hala izan behar.
Garraioan, esaterako, autobusek fun-
tzionamendu arau batzuk dituzte de-

non zerbitzurako direlako. Taxistek
beste arau batzuk dituzte, baina bete-
behar batzuk badituzte, zerbitzu publi-
koa baitira. Telebista kate pribatuei,
aldiz, ez zaie eskatzen.

Nola erantzun pantailan dauden eta
gustatzen ez zaizkigun gauza horiei
guztiei? Pentsatzen erakutsiz. *La bola
de cristal* saioan "desenseñar a desa-
prender" (ezikasten ezerakutsi) esaten
genuen. Izan ere, telebistan horixe era-
kusten da: ez pentsatzen. Komunikabi-
deek orokorrean, eta telebistak berezi-
ki, gaur egun ez dute uzten abstraktura
iristen. Partikularrean uzten gaituzte,
objektuaren munduan, zirkunstantzia-
ren, bizilagunaren munduan. Abstrak-
tua dena, hots, ideien mundua, objek-
turik gabeko mundua, teoriarena,
hausnarketarena, analisiarena... siste-
matikoki ezeztatzen da.

Horregatik, haurrei pentsatzen ira-
katsi behar zaie, eta gero, pentsa deza-
tela nahi dutena. Guri txarrak iruditzen
zaizkigun irudi batzuk onak iruditzen
zaizkiela? Bada, zorte txarra. Gustatzen
zaien musika ez dela guri gustatzen zai-
guna eta eurenak ez duela kalitaterik?
Bada, euren kontua da, euren belarria
eta bizitza da, eta musika horrekin dan-
tzatuko dute. Garrantzitsuena pentsa-
tzen irakastea da; hori da egin dezake-
guna eta egin behar duguna. •

Nola erantzun pan-
tailan dauden eta
gustatzen ez zaizki-
gun gauza horiei?
Pentsatzen irakatsiz.
Haurrei pentsatzen
irakatsi behar zaie:
hori da egin dezake-
guna eta egin behar
duguna.

Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa duen edonoren
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.
Jar ezazu zure aletxoak euskal
hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.

urtarrila

berriak

Kukuketan jolaserako kantuak

Pentagrama-enea, musika irakurtzeko proposamen berri bat


Sortzen-Ikasbatuazek musika-
ren irakurketa-idazketa prozesua-
rekin hasteko sekuentzia didaktiko
bat kaleratu du, **Pentagrama-enea**
izenekoa.

Haurrak musikarekin duen
lehen harremana atsegina eta moti-
bazioz bete izatea garrantzitsua
da, eta hori du xede lan honek.
Musikaren barruan hainbat atal lan-
du daitezke; Pentagrama-enea no-
tazioa lantzeko da, hau da, musika-
ren irakurketa.

Horretarako, **ipuina** eta **antzer-
kiaz** baliatzea proposatzen du. Ho-
rien bidez, hurrek jolastuz ikasiko
dute. Pentagrama-enea horma iru-
dian pertsonaiak kokatzen dira
ipuina garatu ahala. Behin pertso-
naien kokapena bereganatzen du-
tenean, pertsonaiok nota bihurtzen
dira eta pentagrama agertzen den
horma irudian kokatzen dira.


Batez ere Lehen Hezkuntzako
1. mailan erabiltzeko da egokia,
nahiz eta Haur Hezkuntzakoekin
edo zaharragoekin ere erabil daite-
keen.

Materiala liburuak eta ipuinen
kantak biltzen dituen CDak osatzen
dute. Horrez gain, irakaslearentzat
lagungarri den DVDa bat ere badu.
Liburuxkan proposatzen diren jar-
duerak nola lantzen diren ikus dai-
teke bertan.



Xirula Mirularen proposamen berri
bat da **Kukuketan** liburu-diskoa, musi-
ka arloan denok aitortutako esperien-
tzia duten Imanol Urbietak eta Kontxi
Aizarnak luzatutako proposamen ber-
ria. Urtebete edo bi urteko hurrekin
egiteko 25 jarduera proposatzen dira
bertan. Eguneko une desberdinetan
haurtxoei abesteko kantuak dira: esna-
tzerakoan, jatorduetan, bainatzerako-
an, ohera joan aurretik, lokartzerako-
an... Abestien hitzak eta partiturak
agertzen dira liburuan, eta CD batean
grabatuta daude. Horrez gain, jarduera
bakoitzak zein helburu duen eta nola
egin daitekeen azaltzen da: batzuk la-
saitzeko dira, beste batzuk mugimen-
dua bultzatzeko; beste zenbait entzu-
mena, ikusmena, dastamena, jakin-
mina, afektibitatea, emozioen adieraz-
pena, gorputzaren kontrola eta abar
lantzeko.

Berez kanturik gabe egin daitezke-
en jolasak edo jarduerak izan litezke,
baina haurrak oso sentiberak dira musi-
karekin. Horregatik, euren aurrean
kantuan hasiz gero edo diskoa jarri-
z geroz, soinuan jartzen dute arreta guz-
tia. Eta ez zaie belarrietatik soilik sar-



tzen, baizik eta gorputzeko poro guz-
tietatik.

Gurasook, zuek zarete jostailurik hoberenak

Bizitzako lehen hiru urteetan ingu-
ru zirikagarria ematen baldin bazaie,
euren gaitasunak garatzen lagunduko
zaie. Hurrek jolasaren bidez ikasten
dute batik bat, eta jostailurik onena gu-
rasoak dira, euren aurpegia, eskuak,
zangoak... gorputz osoa. Tresneria hori
guztia martxan jartzeko, gozatzeko
denbora besterik ez da behar. Eta
horretan laguntzeko xedez egina dago
Kukuketan.

Adibide pare bat

“Nire hartzatxoa” **abestia**
**hartzarekin dantza egiteko pen-
tsatua dago. Haurrak berezkoa**
du mugimendua eta mugitzeko
beharra. Ziur haur guztiek dutela
euren panpina artean hartzatxo-
ren bat. Bada, hori hartu eta be-
soak gora eta behera, jira bat eta
beste bat, eta nola ez, musu bat.
Musuak eta afektibitatea bana-
tzeko jolasa da. Entzumenaren
trebetasuna eta entzundakoak e-
giteko gaitasuna suspertzen da
jarduera honekin.

“Txoriak bezala” **abestian**
zera proposatzen da: gurasoa lu-
rrean etzatea gora begira eta
oinak haurraren sabelean jar-
tzea. Heldu haurrari eskuetatik e-
ta igo hankak gorantz poliki-po-
liki. Haurra gurasoaren oinen
gainean doa hegan. Mugitu han-
kak aurrera eta atzera, albo bate-
ra eta bestera, haurrak hegan egi-
teko modu desberdinak izan di-
tzan. Kantu-jolas honekin oreka,
konfiantza, ziurtasuna, motrizi-
tate lodia garapena eta ikus-
men pertzepzioa lantzen da.

Telebista eta hezkuntza jardunaldietan irudian alfabetatzeko beharra nabarmendu zen



60 pertsonak hartu zuten parte abenduaren 3an Hik Hasik antolatutako *Telebista eta hezkuntza* jardunaldietan. Irakasleak gehienak, eta tartean ziren telebistako langileak eta unibertsitateko irakasleak ere.

Jardunaldi hauen motiboa, telebistak eta pantailek gaurko gizartean duten eragina ikusita, gaiari adarretatik heltzen hasteko pauso bat ematea zen.

Hainbat begirada

Jose Maria Setien Donostiako gozain ohiak eman zion hasiera egunari, galdera bat abiapuntu hartuta: balioak. Telebista zer anbiziok eta zer interesek gidatzen duten aztertu zuen gero Lolo Ricok, haur eta gazteen saioen programatzaile izanarik. Gaurkoa diru interesek mugitzen duten telebista dela nabarmendu zuen, eta bestetik, “haurren programazioa” baden ere jarri zuen zalantzan.

Euskal Herrian gazteek telebista nola ikusten duten azaldu zuen jarraian Josi Basterretxeak (EHUko Kazetaritza irakaslea). Egin berri duten *Euskal Herriko eskola-gazteek telebistaren kateari* kerketaren datuak eman zituen, zera azpimarratuz: kontsumo indibidualizatua areagotzen ari dela eta ekipamenduak ugari arren, horrek ez duela ekarri medioetan alfabetatzea eta kontsumo kritikoa egitea.

Fito Rodriguezek, EHUko Filosofia

eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea, “Kutxa katolikoa ala katolikoa” izeneko hitzaldia eskaini zuen. Haren ustez, telebistak nolabaiteko amets hipnotikoetan sartzen gaitu, eta horretatik esnatzeko alfabetatu egin behar da.


Eskolaren eta familiaren egitekoetan zentratu zen, ondoren, Antton Alfaro, Lezoko herri eskolako irakaslea. Proposamen praktikoak eskaini zituen, Lehen Hezkuntzan zein DBHn egin daitekeena azalduz, eta hainbat bibliografia zein kontaktu luzatu zituen.

Praktikan jarraituz, Isabel Alba gidolari eta hezitzaileak, haur eta gazte txoeekin irudia lantzeko urtetan daraman esperientzia sortzailea azaldu zuen. Donostiako Larrotxene kultur etxeko proiektuan gidoiak nola lantzen dituzten, pertsonaiak noraino sakontzen dituzten, eta esan nahi dutena iruditan espresatzen nola ikasten duten azaldu zuen, prozesuaren amaieran, kamera hartu eta filma osatzeraino. Haren ikasleek egindako lau laburmetraia ere ipini zituen, denen gozagarri.

Amaitzeko, Asier Altuna eta Telmo Esnal gidoigileek mahai ingurua egin zuten, Xabier Portugal Pasaia-Lezo lizeoko irakaslearen gidaritzapean. Euskal Telebistaz zein bertako zinemas jardun zuten, herri telebistak ugaritzeak ireki ditzakeen ateak aipatuz.



Sortzen-Ikasbatuaz elkarteak EHIGetik atera da



Zergatik goaz EHIGetik?

EHIGEn eratzeko aktan oinarri hauek planteatzen ziren: eskola publiko euskalduna bultzatzea, curriculum propioa lortze bidean jartzea, erabakiak adostasunean hartzea, euskal hezkuntzako gainerako eragileekin elkarlana bultzatzea, hezkuntza sistema propioaren aldarrikapenean jarraitzea... Horrek guztiak gure Elkarteari elkargune berri horretan parte hartzeko beharra sortu zion.

Izan ere, EHIGEn sorrerarekin askok pentsatu genuen aukera berriak sortuko zirela Euskal Eskola Publikorako bidean, paperetan agertzen zenari erreparatuz, behintzat.

EHIGEn eguneroko errealitatean baina, ez dira printzipio horiek eta hasieran sortutako espektatibak bete.

1.- EAEn D ereduaren aldeko apustu garbirik ez. Gauregungo ereduaren politikan ondoen euskalduntzen duen eredu bakarraren aldeko apustu garbia egin dugu, hau da, D ereduaren aldekoa. EHIGEn azken urteotako matrikulatze ekitaldietan, berriz, nafarroan soilik egin da apustu hori; gainerako lurraldeetan "euskal eskola publikoa" lelopean egin izan da, hizkuntza eredurik zehazteke.

2.- Lurraldetasun ikuspegitik urrun. Euskal Herri osorako proposamenak lantzearen beharra aipatu dugu, baina orain arte EAeko puntuak dira nagusi EHIGEn eguneroko lanetan eta hainbat gaitan eremu hori zabaltzeko zailtasunak ikusi dira.

3.- Erabakiak ez dira adostasunez hartzen. Erabakiak hartzerakoan guztion iritzia kontuan hartzea eskatzen dugu eta ez da inolaz ere betetzen. EAeko hiru federazio nagusiek (Denon Eskola, Baikara eta BIGE) euren interesen araberako erabakiak hartzeko joera azaldu dute. Beraz, zenbaitetan eman be-



harreko pausoak ez dira adostuak izaten.

Horren adibide garbia litzateke EHIGEn Barne Araudia hiru federazio nagusi horien neurria egin dutela. Eta ondorioz, organo/ardura pertsonalak/kolektiboak ez dira inoiz gainerako federazio/bazkiden eskura izango.

Bestalde, ez dute eskola komunitate osoaren ikuspegia onartzen, beraien "lidergoa" kolokan jartzen duela koan.

4.- Euskal Curriculumaren egitasmoan parte hartzerik ez. Prozesuaren hasieratik gonbidatuak izan ziren arren, prozedura aitzakia argudiatuz, oraindik ez diote atxikimendua adierazi janik hezkuntzako 21 eragile sinatu duten proposamenari. Edukietan zailtzarrik ez badago, aldiz, garrantzi handiagoa eman beharko genioke guztiok gai horren garapenari, estrategikoa gertatzen baita hezkuntza alorrean.

5.- Euskal Eskola Publikoaren festa(k). Sortzen-Ikasbatuaz elkartetik lan bateratuaren aldeko apustu garbia egin dugu, baina ez dugu EHIGetik erantzun berdina jaso. Nafarroan izan ezik, gainerako herrialdeetan ez dugu adostasunik lortu, festa bi elkarten izenean antolatzeko.

6.- Hezkuntza eragileekin elkarlanik ez. Burutu beharreko elkarlanean ere ez dugu adostasunik lortu. Espainia mailako CEAPArekin harreman egon-

korrek estutzen dituzten bitartean, Euskal Herriko hezkuntza eragileekin ez dute elkarlana sustatzeko konpromiso garbirik hartzen.

7.- Elkarrekiko begirunea. Baskongadetako federazioek bultzatuta, Sortzen-Ikasbatuazeko bazkidetza zokoratzeko saiakerak egin dira. EHIGEk, Sortzen-Ikasbatuaz elkarteak bidelagun gisa hartu beharrean, kompetentzia bagina bezala hartzen gaituela dirudi.

Horiek horrela, hona hemen Sortzen-Ikasbatuaz elkarteak hartutako erabakia:

Sortzen-Ikasbatuaz elkarteak EHIGEn orain arte izandako parte-hartzeari uztea.

Hala ere, Sortzen-Ikasbatuaz elkarteak prest legoke elkargune horretan (EHIGE) bere parte-hartzea birplanteatzeko, baldin eta EHIGEk Eratze Aktan aipatzen dena gauzatuko balu, barne araudia eta planteamendu murrizak baztertuz eta Euskal Herriko ekimenean parte hartzeko konpromiso garbia eta eraginkorra hartuz.

Bukatzeko, Sortzen-Ikasbatuaz elkartearen bazkideen interesak defendatu eta aurrera eramateko asmoz, adierazi nahi dugu Nazio Iraunkorren esku utzi dela honi buruz eman beharreko urratsen kudeaketa.

*Sortzen-Ikasbatuaz elkarteko
Nazio Iraunkorra
2005eko abenduaren 14an*



EHIGEn erantzuna

EHIGE Gurasoen Elkarteak, bere izenak adierazten duen moduan, gurasoak osatutako erakundea da. Euskal Herri osoko Guraso Elkarten federazioek osatzen dute. Orain arte horien artean Sortzen Gurasoak-ek (Konfederazioa eratu zenetik parte hartu izan du) eta Ikasgeek (elkartean sartu den azkenak) hartu dute parte. Sortzen-Ikasbatuaz erakunde moduan ez da inoiz EHIGEk parteidea izan, nahiz eta Sortzen Gurasoak eta Ikasgeek argi utzi zuten hasieratik eurek Sortzen-Ikasbatuaz parte zirela eta elkarrekin planteatzen zituztela gauza guztiak.

Sortzen-Ikasbatuazek EHIGEtik ateratzeko aipatutako gaiak buruz zera adierazi nahi dugu:

- **Curriculumak.** EHIGE beti agertu da Curriculum propio baten alde. Ez hori bakarrik, gure adostasun orokorra adierazi diogu Euskal Curriculumak deritzon ekarpenari. Baina ez zaigu irudituko curriculumak txoko batean geratzeko lan bat denik. Hori dela eta, joan den urtean zera adierazi genuen:

* Ongi deritzogu Euskal Curriculumak egiteari. Curriculum berri honek egundugun curriculumak ordezkatu beharko luke. Ikastetxe guztiak garatu beharreko curriculumak izan beharko luke.

* Orain arte erabili den prozedura guztiz desagokoa iruditzen zaigu. Honelako egitasmo batean oinarritzat jotzen dugu hezkuntza eragile guztien inplikazioa.

* Gure kritika Administrazioari egiten diogu, erabili duen prozedurari batez ere. Benetako adostasuna eta guztion onetsia bilatzen bada, beste era batera jokatu behar delako.

* Guraso gisa bere mementoan parte hartzeko ados gaude, beti ere aniztasuna, partaidetza eta inplikazioa bermatzen badira. Inplikazioa ezinbestekoa da curriculumak arrakastaz jartzeko martxan.

Curriculumaren mamia izango dena garatzea ez dagokigu guri; guk ez dugula lan talde horietan parte-hartze zuzenik izango, konfiantzazko pertsonak egon badaudelako jadanik adituen artean.

Gaur pozik agertzen gara, egin diren ahaleginak eta guztien borondateari esker datorren astetik aurrera gai horren inguruan elkarlana bermatuko delako.

- **D eredua.** EHIGEn jarrera ereduaren auzian euskal herritar ororentzat aski ezaguna dela gauden arren, esan baino ez. Irakaskuntza Publikoak euskalduntzen ditu EAeko hiru ikasletatik bi. 20 urte baino gehiago daramatzagu euskalduntze prozesua bultzatzen, irakasleria euskalduna eskatzen, murgiltze ereduak eta normalkuntza proiektuak sustatzen... B ereduaren ikasitako ikasle asko gure laguntzari esker 12 urterekin D eredura pasatu dira... Sortzen-Ikasbatuazek adierazitakoa egiazatik oso urrun dago eta iraingarria deritzogu esandakoari.

- **Lurraldetasuna.** Euskal Herriko Gurasoen Elkarteak Euskal Herri mailan lan egiten du: Iparraldeko Ikas-Bik, Frantziako FLAREP (Hizkuntza gutxituen erakundea) eta euskalgintzak antolatzen dituen ekimenetan, Nafarroan Sortzen Gurasoak erabakitzen dituen arloetan eta EAEn beste federazioek adostasunez bultzatzen dituztenetan. Horrez gainera, EHIGE bere ikuspegi orokorra lantzen ahalegintzen da hezkuntza, kultura eta hizkuntza egitasmo, foro eta ekitaldietan parte hartuz. Berritoren edozein norbanakori edota erakunderi gu ezagut gaitzan gonbitea luzatzen diogu, ezezagutzatik eta aurreiritzietatik hitz egiten denean zaila izaten baita benetan asmatzea.

- **Euskal Eskola Publikoaren Jaia.** Duela 14 urte Euskal Eskola Publikoaren Jaia bultzatzea erabaki genuen guraso elkarteok eta EHIGEk bere gain hartu zuen jai hori 2002 urtean sortu

zuzenean. Gogoeta, aldarrikapen eta aisialdirako gunea izan da beti aia eta hezkuntza eragileek beti izan dute lekua. EHIGEk beti errespetatu eta lagundu du Sortzen-Ikasbatuazek Nafarroan egiten duen jaiak. EHIGEk gurasoen eskuetan mantenduko du jaiaren antolaketa eta espiritua. Horrexegatik ez da Sortzen-Ikasbatuazekin batera sinatzen jai hori, ez delako gurasoen federazioa.

- **Erabakien hartzea.** Funtzionamendu arauak dagokienez, gure tankerako beste erakundeekin berdina dira. Adostasuna da eztabaida eta erabaki hartzearen oinarria. Adostasunik ez badago ezin dira hartu gehiengo kualifikatutik ez datozen erabakiak, eta estatutuek hala esaten duten kasuetan soilik; ez soilik elkartutako kideen kopuruagatik, baita federazio edo herrialde kopuruagatik ere. Bertako arauak kontuan hartuz sartu al dira Konfederaziora? Zergatik orduan hainbeste arazo batzarretan? Zergatik orduan hainbeste desadostasun batzar bakoitzean? Zergatik kostatzen da hainbeste besteek ere arazoia izan dezaketela aitortzea? Ez da ahaztu behar federazio bakoitzak autonomia osoa daukala antolatzeko eta bere herrialdean lan egiteko. Hori erabaki zen eta horrela lan egin dugu.

EHIGeko kideek egokiaz deritzoten informazio guztia eskaintzen jarraituko du Euskal Herri osoko gurasoek. Gaur, inoiz baino gehiago, Euskal Eskola Publiko euskalduna eta kalitatezkoan sinesten duten ororen topaleku izan behar duela uste dugu. Eragile eraginkorra izan behar du beraz garatzeko bidean. EHIGEk ez du aterik, gure eguneroko lana eta pedagogia ikuspegi publiko delako. Hori dela eta, zaila izango zaigu edonorri atea istea. Eguneroko gehiago izateko lan egiten dugu.


*Imanol Zubizarreta
EHIGeko presidentea*

argitalpenak



gazt_ hizkera URTXINTXA ESKOLA

“Gazte hizkera” izeneko jardunaldiak (2005, Azpeitian) aurkeztu ziren hitzaldi eta ondorioak bildu dituzte liburuxka honetan. Kike Amonariz, Imanol Esnaola, Asisko Urmeneta, Estibalitz Amorrortu eta Asier Larrinagaren hitzaldiak datoz, bi mahai inguru (“Gazte hizkera eskolan eta aisialdian” eta “Gazte hizkera komunikabideetan”), eta gazteen ondorioak. •



Euskarazko jostailuen gida URTXINTXA ESKOLA

Alemonografikoa atera du *Aisia Bizizaldizkariaren* neguko aleak: Euskarazko jostailuen gida. Bertan azaltzen dira jostailuak aukeratzeko gomendioak, adinaren eta lantzen den gaitasunen arabera zer jostailu dauden, jostailuen sailkapena, zer espaziotan jolastu eta jostailugintzako ekoizleak. Euskarazko material guztiaren bilketa eta sailkapen dotorea da. •




Arbela, 37. alea BARAKALDOKO BERRITZEGUNEA

Barakaldoko Hezkuntza Aldizkaria da Arbela. Azken alean, ikastetxeen atalean, Beurko institutuko irratigintza esperimentzia zein Ibaibe eskolaren 25. urteurrena ageri dira. Baita eskoletatik jasotako lau proiektu ere. Bizikidetza gaiari tarte zabala eskaintzen dio, eta Eskola Agenda 21 eta Genero eta Kirolaren Hirugarren Jardunaldiak azaltzen ditu. •



Euskal Herriko historia ezkutua Gotzon Aranburu GAIK

Gure herriaren historian letra handiz azaltzen ez diren historiak eta kontakizunak biltzen ditu. Judizmendi, Gasteizi emandako judu-hilerria; gezurrezko sorginak eta egiazko torturak Senpereko gazteluan; Iraultzak herri osoak erbestera zituena Lapurdin; Katalin katolikoak lotsarazi egin zuen Miarrizteko komisarioa... •



Knossos-eko ondarea Pello Gutierrez, Daniel Rekondo SAURE

Haur eta helduentzako abentura komiki bat da, Kreta eta Iruñean kokatuta dagoena, bi lurraldeek uste baino lotura gehiago baitute. Minotauroaren mitoak bi hiriak elkartzen ditu, zezena gurtzearen ohiturak elkarturik. Protagonistak (Aritz pilotaria, Joxe eta Eider) desagertutako lagunaren bila abentura batean murgilduko dira. •



Guti Kirmen Uribe ELKAR

Idazle ondarrutarrak ondo ezagutzen ditu marinelen bizimodua eta gorabeherak, eta berak dio barku bakoitzean izaten zen txakurra proletarioa zela, behargina. Horrelakoa da Guti arratoi txakur bizkorra. Horren istorioak eta arrantzaleen bizimoduarekin lotuta daudenak agertzen dira, Antton Olariagaren lan harrigarriarekin. •

... goza nazazu gehiago

Jolasaren hizkuntza eta hizkuntzaren jolasa



Jaime Altuna
Urtxintxa heziketa eskola

Xirristi mirristi, gerrena pla, olio zopa, kikili salda, edan edo klik. Hitz magikoak, sorgin hitzak edo hitz jokoa? Mikel Laboak ezagunak egin zituen hitz jokoa entzuterakoan sorgin hizkera etortzen zaigu burura. *Artxila mortxila* bezain magikoak egiten zaizkigu garai batean dona-dona egiteko erabiliak ziren lelo onomatopeiko hauek. Hala dira ez Zugarramurdiko sorginek erabiltzen zituztelako, hurrek bere jolasetarako erabiltzen zituztelako baizik. Aspalditik, hurrek hitzen lilura jolasetan aurkitu dute eta hitzen magia jolasen bidez transmititu da. Jolasetan, eguneroko bizitzarekin, bizitza arruntarekin alderatuta, irrealtasunaren halako kontzientzia bat dago. "Beste gauza bat gara", "beste gauza batzuk egi-

ten ditugu"; dena misterioz betea da, jolaskideek soilik dakizkiten ezkutuko sekretuez betea.

Eta hitzen lilurak erabilera dakar eta, era berean, lilurarik gabe erabilera nekez suertatzen da. Kaleko jolasak ezagutza lantzeko balio dute, baina, batez ere, erabilera sustatzeko tresna dira. Hurrek jolasean denbora asko pasatzen dute eta jolasean euskara erabiltzea lagunarteko harremanak euskaraz eraikitzeo urrats garrantzitsua da. Aspaldi honetan, ikastetxeetan jolas garaietan euskararen erabilera jolasen bidez dinamizatzeko programa ugari egiten dira. Lan nekeza eta kontraesanek betea izaten da: jolas askea zuzendu behar al da? Denbora librea dinamizatu behar al da? Hizkera ez formala transmititzea irakasleen lana al da? Zoriturrez, kalean eta gurasoen bidez euskarazko jolasak eta jolasteko hizkera gutxitan transmititzen da. Beraz, jolasaren bidez euskararen erabilera sustatzea eskolaren egin beharra da jolasetan erabiltzen den hizkeraren lanketaren bidez eta jolas dinamizazioen bidez. Horretarako, irakasleek euskararen magia transmititu beharko dute, Anjel Lertxundik aipatu zuen bezala: «hizkuntzaren irakaskuntzak, ororen gainetik, hitzaren poza eta lilura transmititu behar ditu». Eta hizkuntzaren erabilerarako beharrezkoa den lilura hori, jolasetan aurkituko dugu haur txikiekin lana egiten dugunok.

ZER EGIN

Jolas garaietan erabilera sustatzen...

Ikastetxean Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloetako hurrekin jolas garaietan lagunarteko hizkeraren erabilera sustatzeko hainbat gauza egin ditzakegu. Jolas dinamizazioen bidez, jolasari berari garrantzia emateaz gain, jolasteko garaian erabiltzen den hizkerari emango diogu garrantzia:

- Astean behin, jolas garaian jolas saio dinamizatu bat antola daiteke. Ez da komeni jolas garai bat baino gehiago izatea, hurrek denbora librea edukitzeak garrantzia baitu.
- Hilean behin, jolas garai bat aukera dezakegu HH eta LHko guztiek aurretik ikasitako lau bat jolas egiteko.
- Jolas eguna antola daiteke eta aurretik landutako jolas guztiak egin.
- Eskola orduak erabil daitezke jolas berriak erakusteko eta erreparatzeko, baita jolasetan erabiltzen den hizkera lantzeko ere.
- LHko 2. eta 3. zikloetako hurrek euskarazko jolasen bilketa egin dezakete eta ondoren haur txikiei jolas horiek erakutsi. Horretan ere, garrantzia izango du jolasetan erabiltzen den hizkera jasotzeak.
- Interesgarria da ikastetxeetan lana egiten duten aisialdiko hezitzaileek landuko ditugun jolasen eta jolas hizkeraren berri izatea, beraien lanean jolas eta hizkera hori integratzeko.
- Gurasoei landutako jolasak eta hizkera transmititu: ikastarotxoak, txostena, argitalpenak...
- Horrelako egitasmoetako programazioak garrantzi handia du: interesguneekin lan egitea (pertsonaia bat, gai bat, abesti bat...), erakargarriak zaizkien jolasak erabili eta gustatzen ez zaizkienak baztertzeko, jolasak errepikatzea...

atzeko atetik



Estitxu AROZENA

BERTSOLARIA

-Su sara bertsolaritza?

Karrera bukatu berri, ikastetxe ezezagun, haur pila... ez da egoera egokiena erantzun egokia bilatzeko. Esplikaiozu oraindik ere "ni bertsolaria naiz" erratearikara eta errespetua sortzen digula zenbaiti, bertsolaritza zarela errateko moduan! Baina zuzentzen hastea ere... Denboraren joanak eta ikasturteen etorriak akats horietaz irri egiten ere erakutsi dit. Zerbait badaki behintzat! Eta aintzinerara. Ikastaro bateko irakasleak behin aski ongi erran zuen bezala:

- Eskuaratean duguna, izan duen inguru eta baldintzetan bilaka zitekeen subjekturik onena da.

Ez zen preseski Iruñerriko soziolinguistikaz ari; ez eta nafar gobernuaren hizkuntza politikaz. Sexualitatearen ingurukoa zen ikastaroa, Madrilen geunden. Baina bikotekidea jotzen duenari aplikagarri izateko zailtasunak ematen

Gaztetxoen umore kolpea

dituen esaldia izan arren, guztiz egokia da gure lanerako. Batzutan ez da errega bertsoa bezalako tresna bat esku artean, esku-hartzea egitea. Noski, Goizuetan errexagoa Berriozarren baino. Baina non bizi dira Nafarroako euskal hiztun gehienak? Iruñerrian noski! Beraz, hartu kotxea eta bertsoak (dagokion oinarri pedagogikoekin e? Ostatueta oraindik eresartzen gara baina atera ere egin ginen) eta taldez talde. Helburu nagusia euskararekin jolas egitea, ongi pasatzea, euskaraz irri egitea. Ergatiboa ongi egin dezaten oinarritzkoa baita ongi egin nahi izatea eta gure esku dago motibazio horren kudeaketa. Euskararen aldeko jarrera izan badute gehienek. Gure esku zati haundi bat dago, izan daiteke material bera, taldearen ezaugarri beretsuak baina... Hezkuntzan baina asko daude. Bertso xorta bat, adibidez doinuagatik interesgarria baina... Zuk ere tontoarena eginez abesten baduzu taldea poltsikoratzeko arriskua. Hori bai, eraginkorragoa da asteen 50 minutuko klase motibagarri bat ematea, egunean 5 ordutan tontoarena egiten pasatzea baino.

Batzutan harritu egiten zaituzte gaztetxoek; edo bertzela ez erran umore kolpe izugarria ez denik oraintsu pasatutako hau: Antsoaingo Ezkaba ikastetxean, errima jolas bat egiten ari ginen:

- Klasea bitan banatuko dugu, erdiek **onarekin** errimatzen duten hitzak botatzen joan behar duzue eta bertze erdiek **unarekin**. Gogoratu behiaren soinua nola den e? (n eta m hoskideak direla gogoratzeko behiaren mmmmmnnna erabiltzen baitugu, bere marrazkitxo eta guzti).

Hor ari gara ba, batzuek *Pamplona, Maradona* edo *Madona* (*pertsona* edo *sakona* baino errexago etortzen zaizkie horrelakoak, entzun ere gehiagotan eginen zituzten) eta bertzeak *gutuna, laguna* eta *kuttuna*. 10-15 hitz bota ondoren errekurtsuak agortzear, pistak ematen hasten zara:

- Eskaleak bere txapelera botatzea nahi duena?

- TXANPONA!!!

- Hagitz ongi! Zer da Andoni Egaña? (iazko abenduaren 18az geroztik)

- Burusoila!! (gutxienez bertze 4 urtez) •



Hego Euskal Herrian 14-18 urteko gazteek, albistegietan ETB2 hiru aldiz gehiago ikusten dute ETB1 baino. Profil linguistikoari dagokionez, ETB2 ikusten dutenen artean, hirutik bi euskaldunak dira.

Iturria: "Euskal Herriko eskola-gazteak telebistaren katean" ikerketa.

Film baten barruan zer dagoen
ikusi nahi al duzu?

Hemen duzu proposamen didaktiko bat
(DVDa + GIDA didaktikoa)

Liburu-GIDA

- "Begiradaren Heziketa" erabiltzeko GIDA
- Hiztegi teknikoa

DVDaren osagaiak

- *Ilargiaren Sekretua* filma osorik
 - *Ilargiaren Sekretua* filmaren estrak
 - "Begiradaren Heziketa" proposamen didaktikoa.
- Hor lantzen diren atalak:

- 1.- FILMA EGITEKO PROZESUA
- 2.- GIDOIA
- 3.- IRUDIA
- 4.- SOINUA

5.- EFEKTUAK

6.- DISEINUA

7.- MEZUAK ETA BALIOAK

8.- ZINEMAREN BILAKAERA





euskal

CURRÍCULUM VASCO
CURRICULUM BASQUE
BASQUE CURRICULUM

CURRICULUMA

HERRITARREN EKARPENA

JARDUNALDIAK

2006ko urtarrilak 28 KURSAAL

- Norberaren Garapenerako Hezkuntza
- Ingurugiro Hezkuntza
- Hezkidetza
- Kulturarteko Hezkuntza
- Hezkuntza eta Euskara
- Historiaren Irakaskuntza
- Hezkuntza eta Eskubide Sozialak
- Hezkuntza eta Parte Hartzea
- Hezkuntza eta Komunikabideak
- Internazionalismoa eta Garapenerako Hezkuntza

IZEN-EMATEA ETA INFORMAZIOA:

www.euskalcurriculum.info